



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

6 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Fiteroko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Cintruenigoko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (15. or.).

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Fiteroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Fiteroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 12a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Fiteroko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua (2. or.).
 - II. Norainokoa eta mugak (2. or.).
 - III. Iritzia (3. or.).
 - IV. Finantza-egoerak: 1995eko Aurrekontuaren Betetzea (3. or.).
 - V. Ondorioak eta gomendioak (4. or.).
- Eraskinak** (14. or.).

1. eraskina. Finantza-pasiboen zerrenda (14. or.).

2. eraskina. Organigrama (14. or.).

I. HELBURUA.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorritik, Kontuen Ganbarak sartu du bere jarduketa-programaren barruan Fiteroko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzieroa eta 1995eko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren Aurrekontuaren Betetzearen fiskalizazioa.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legeriaren barruan honako hauek biltzen dira fun-

tsean: uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberrizteari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako Toki Erakunde-
ei eskuarki ezar dakikeen gainerako arautegia.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeak, 1995 urtean onartu den arren, ez du ekitaldi honen gaineko eragin egiazkorik, parterik handienak 1996ko urtarrilean hartu baitzuen indarra.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

a) 1995eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1995eko abenduaren 31n zegoen ondare egoera azalaraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate-hatsapenen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzieroa legezketasuna-hatsapenaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

Fiteroko Udalak 1996ko urtarrilaren 1ean 2.124 zuzenbideko biztanle zituen, erroldako datuen arabera.

II. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa programarekin bat, Fiteroko Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

Udaleko kontabilitatea aurrekontuaren betetzearen jarraipena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilitatea). Ez da ekitaldi bakoitzaren bukaran Udalaren ondare egoera islatzen duen kontabilitate orokorrik ageri.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomiko guztiak berrikusteari lotu zaio burutu den txostenean. Antolaketa, kontabilitate eta barne

kontroleko alderdiak jorratu dira, gorabeheren arabera eta Udalari bidali zitzaion galdesortak azaleratutako arazoekin bat beharrezkotzat jotako frogak egin direlarik. Horretarako eskuarki onartutako Sektore Publikoko kontu-ikuskaritzari buruzko hatsapenak eta arauak aplikatu dira.

Udalan bada Zaharretxe bat, 1995eko uztailan organismo autonomo bezala eratua. Bertan daudenek berek ordaintzen dituzten kuoten bidez finantzatzen da, gehi Udalak zein Nafarroako Gobernuak ematen dituzten dirulaguntza txikiak.

Zaharretxeak, 1995 urtean ez du aurrekonturik egin, ez eta kitapenik ere. Udalak bere kontuetan eman dituen dirulaguntzak erregistratzea baizik ez du egin. Hortaz, aztergai izan zitekeen konturik ez zegoenez, ez da ezer aztertu.

Gure lanak izan dituen mugak, funtsean, batez ere inbentarioa ukitzen duen ezarritako kontabilitate-sistema eskasak eragin ditu, bai eta aurreko lerroaldean esan duguna ere.

Udalaren kudeaketa hobetzeko ohar eta gomendioak biltzen dira txostenean. Era berean, bi eraskin gehitu dira, finantza-pasiboen zerrenda biltzen duena, bata -1 eraskina-, eta erakundearen organigramaren berri ematen duena bestea -2. eraskina-.

Zelaiko lana 1996ko ekainean egin zen.

Fiteroko Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

III. IRITZIA.

Bururiko fiskalizazioaren esparruan Fiteroko Udalaren gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzearen egoera aztertu dugu, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

Gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako ikuskapen-arau eta prozedurak erabili ditugu gure azterketan.

Gure azterketaren ondorioz, horra hurrengo iritzia:

III.1. UDALA.

III.1.1. Aurrekontuaren garapena eta betetzeari buruzkoan.

1995eko aurrekontuaren betetzearen egoerak Udalak, fiskalizatutako ekitaldian eginiko eragike-

ten multzoa behar bezala azaltzen badu ere, badi-ra salbuespen batzuk:

- Hainbat dirusarreraren erresulta egotea, ekitaldi hartako huts egindakoei pasatu behar izan zitzaiena (ikus V.1. Atala)

- Zuzenak ez diren aurrekontu-egozketak izatea, nahiz eta garatu den udal-jarduerari buruzko isla orokorraren gainean eraginik ez eduki.

- 1995eko ekitaldiko eragiketen mozketak txarra, nahiz eta garatu den udal-jarduerari buruzko informazio ekonomiko-finantziarioa ez aldatu.

- Gastuen izaera murriztailea ez da errespetatzen, batez ere 2., 3. eta 4. kapituluetan.

III.1.2. Ondare-egoeraren azalpena.

Ondare-kontabilitaterik ez izateak, eta, hortaz, egoera-balantzerik ez izateak, eta gaurkoturiko inbentariarik ez izateak ez digute biderik uzten Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen ondare egoeraz iritzirik emateko.

III.1.3. Legezketasuna.

Inbertsio, zerga eta aurrekontu-kontabilitate arloetako arautegian hainbat ez betetze badirela ikusten da. Horietaz mintzatuko gara txosten honetatik zehar.

III.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK.

Zaharretxeak ez du 1995. urtean aurrekonturik egin, ez eta kitapenik ere. Aztergai izan zitekeen konturik ez zegoenez, ezin izan dugu azterketarik egin, eta ezin dugu aipatu erakunde autonomo horri buruzko iritzirik eman.

Laburbilduz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan behar da Udalak prestatu duen aurrekontuari buruzko informazioak arrazoiz jasotzen dituela ekitaldian izan diren gastuak eta dirusarrerak, baina Kontuen Ganbarak beharrezko ikusten du egungo informazio ekonomiko-finantziarioaren gaineko sistema kudeaketa publikoen beharrei egokitzeta. Ildo honetatik doaz txosten honetan bildu diren gomendioak.

IV. FINANTZA-EGOERAK: 1995EKO AURREKONTUAREN BETETZEA.

1995eko gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzea ondoren azaltzen dena da:

GASTUEN AURREKONTUAREN KITAPENA
1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Kitatutako betebeharrak	Kitatutako ordainketak	Ordain-tzeke	Betetzearen %	Aitortutako guzt. g/%
Ixitako ekitaldien erresultak	0	12.563.081	(7.845.315)	4.717.766	4.717.766	4.674.630	43.136	100	2
Langileen soldatak	1	47.930.000	0	47.930.000	47.325.067	47.325.060	7	99	17
Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea	2	44.150.000	0	44.150.000	51.830.651	47.102.226	4.728.425	117	19
Korrituak	3	7.250.000	0	7.250.000	7.370.452	7.370.452	0	102	3
Ohiko transferentziak	4	19.210.000	0	19.210.000	23.844.432	23.566.549	277.883	124	8
Inbertsio errealak	6	159.500.000	0	159.500.000	136.095.385	105.609.240	30.486.145	85	49
Kapital transferentziak	7	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-aktiboan aldaketa	8	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	6.892.000	0	6.892.000	6.882.583	6.882.583	0	100	2
Guztira		297.495.081	(7.845.315)	289.649.766	278.066.336	242.530.740	35.535.596	96	100

DIRUSARREREN AURREKONTUAREN KITAPENA
1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Kitatutako eskubideak	Kitatutako dirubilketak	Kobratzeke	Betetzearen %	Aitortutako guzt. g/%
Ixitako ekitaldien erresultak	0	22.828.846	(9.411.238)	13.417.608	13.414.568	9.770.075	3.644.493	99	5
Zuzeneko zergak	1	28.275.000	0	28.275.000	27.954.842	27.407.116	547.726	99	10
Zeharkako zergak	2	5.850.000	0	5.850.000	6.440.043	6.271.052	168.991	110	2
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	44.291.000	0	44.291.000	45.494.653	44.846.846	647.807	103	16
Ohiko transferentziak	4	54.566.000	0	54.566.000	63.928.863	63.928.863	0	117	22
Ondare-dirusarrerak	5	950.000	0	950.000	1.245.197	1.245.197	0	131	0
Inbertsio errealak besterenganatze	6	30.000.000	0	30.000.000	31.015.481	31.015.481	0	103	11
Kapital transferentziak	7	121.000.000	0	121.000.000	96.045.177	96.045.177	0	79	34
Finantza-aktiboan aldaketa	8	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		307.760.846	(9.411.238)	298.349.608	285.538.824	280.529.807	5.009.017	96	100

Iturria: Fiteroko Udala

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondoren ohar, ondorio eta gomendioak azalzen ditugu, Udalaren barne antolaketa eta barne kontrola sistema hobetzeko egokitzat jotzen ditugunak, hartara kudeaketa hobetzea lortu ahal izateko.

V.1. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK.

Iritziari buruzko III. atalean esandakoarekin bat etorritik, aurrekontuaren betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

Fiteroko Udalaren 1995eko ekitaldiko aurrekontua 1995eko apirilean onartu zen.

Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen 1996ko maiatzaren 28an aurrekontuaren betetzea.

1995eko Aurrekontuak betetze-maila eduki zuen bai dirusarreretan eta baita gastuetan ere —ehuneko 96—; halarik ere, ikusi ahal izan dugu zenbait gastu-kontusailetan aurrekontuak paratzen zuen muga gainditu egin dela, beharrezkoa den aurrekontu-kontusailen aldaketa gauzatu gabe.

1995eko aurrekontuaren betetzeak, aurreko ekitaldietako erresultak kendu eta gero, 272.124.256 pezeta jotzen duten aitorturiko eskubideak dauzka, eta 273.348.570 pezeta jotzen duten aitorturiko betebeharrak. Hortaz, betetzeak 1.224.314 pezeta jotzen duen defizita dauka.

Gastuen egoeran (ikus IV. Atala), aitorturiko betebeharren aldetik garrantzirik handiena harpatzen duen kapitulua inbertsio errealena da, guztiaren ehuneko 49 egiten duelarik, eta honen ondoren ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea

eta langileen soldatak datoz, ehuneko 19 eta ehuneko 17 jotzen dutelarik hurrenez hurren.

Dirusarrerren egoeran (ikus IV. Atala) kapital transferentziak eta ohiko transferentziak nabarmentzen dira, eta hauek aitorturiko eskubideetan jotzen duten ehunekoak ehuneko 34 eta ehuneko 22 dira, hurrenez hurren.

Orokorrean, azpimarratzekoa da aurrekontua ez dela kudeaketa-tresna bezala erabiltzen, eta ez direla aurrekontu-aldaketak egiten.

Izaera ekonomikoaren araberrako gastu eta dirusarrerren egozpen txarrak badira, eta eragiketen mozketak ez da behar bezala egiten.

Egin dugun azterketan zehar ikusi ahal izan dugu 1995eko aurrekontuaren kitapena ondoren aipatzen diren zenbatekoetan aldatu behar zela:

- Aurreko ekitaldietako gastuak eta dirusarrerak sartu dira. Hori horrela, 1995eko aurrekontuaren kitapenak behar zuena baino gastu eta dirusarrerera gehiago dauka, zehatz esanda 4.302.000 eta 7.315.000 pezeta gehiago, hurrenez hurren.

- Badira, bestalde, 1995eko ekitaldian sortu diren gastuak eta dirusarrerak, baina urte hartako aurrekontuan sartu ez direnak. Honek gehikuntza bat ekarri behar lioke aurrekontuari; zehatz esanda, 2.089.000 pezeta gehiago gastuetan eta 7.222.000 pezeta dirusarreretan.

- Zenbait kontusail dirusarrerren erresultetan sartu dira, baina kontusail hauek oso zaharrak dira, eta huts egindakoetara pasatu beharko luke. Hortaz, 1.654.000 pezeta gutxiago egon beharko luke erresultetan.

Aurreko lerroaldeetan esandakoaren arabera, hauek dira gure gomendioak:

- *Aurrekontuak legeak ezartzen dituen epeen barruan egin eta onartzea, eta azkarrago kitatzea.*

- *Aurrekontuan gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatzea, aurrekontuaren betetzea behar bezala jarraitu ahal izateko, kredituen izaera murrizgarria errespetatzea edo/eta, beharrezkoa izatera, aurrekontu-aldaketen ildotik jotzea.*

- *Gastuak eta dirusarrerak dagokien epigrafean kontabilizatzea, beren izaera ekonomikoa aintzat hartuz, aurrekontuaren betetzearen kopuruen distortsioa saihestuz.*

- *Toki Sektore Publikoaren Kontabilitate Plan Orokorra ezartzea, norberaren langileen bidez hau bideragarria denean, edo bestela beste hainbat toki entitarerekin hitzartutako formulen bidez.*

V.2. EGOERA EKONOMIKOA 1995EKO ABENDUAREN 31N.

- 1995eko abenduaren 31n, jaso den informazioaren arabera eta txosten honetan biltzen direnak kontuan hartuz, Udalak honako egoera finantziero hau dauka:

	Pezetak
Dirusarrerren erresultak	5.009.017
Diruzaintzako saldoa	37.999.067
Gastuen erresultak	(35.535.596)
Superabita	7.472.488

Superabit hau, alabaina, kobratzeke dauden erreziboetan egon litezkeen balizko kaudimenga-beziekin eta huts egindakoekin doitu beharko litzateke, doiketak 1.654.000 pezeta jo beharko lukeelarik, gutxi gora behera.

- Bestalde, hona hemen hainbat ratio eta magnitude, Udalak aurkeztu dituen 1994 eta 1995eko aurrekontuen betetzeetatik lorturikoak:

Ratioak eta magnitudeak	1995	1994
Aurrezki gordina (1)	22.063.455	25.976.563
Aurrezki garbia (2)	7.810.420	9.996.994
Tributuen bidezko dirusarrerak per capita	37.613	36.934
Inbertsioak per capita	64.075	82.484
Zorpetze maila (3)	%10	%12
Zorpetze muga (4)	%15	%19

- (1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak
Dirusarreretak 1. kapitulutik 5.era dira dirusarrerak, eta gastuetako 1., 2. eta 4. kapituluak dira funtzionamendu gastuak
- (2) Aurrezki gordina - zama finantzieroa
Zama finantzieroa gastuetako 3. eta 9. kapituluak osatzen dute
- (3) Zama finantzieroa / Ohiko dirusarrerak x 100
- (4) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrerak x 100

Ondoren, aurreko datu hauei buruz mintzatuko gara, 1994ko datuak ikuskatu gabe daudela ahaztu gabe. Alabaina, datuak alderatuz gero segidako ondorio hauek atera daitezke:

- Bi ekitaldietan aurrezki gordina zein aurrezki garbia positiboak dira, 1995 urtean gutxiagotu diren arren, honek esan nahi duelarik udalbatzak bere baliabideak sortzen dituela inbertsioak finantziateko.

- Tributuen bidezko dirusarrerak per capita antzekoak dira 1995ean eta 1994an.

- Inbertsioak per capita direlakoek behera egin zuten nabarmen 1995 urtean, 1994 urtean 176 milioi inbertitu zirelako eta 1995 urtean 136 milioi baizik ez.

• Zorpetze maila zorpetze muga baino txikiagoa da, eta honi esker datozen ekitaldietan egoera ona izango da, eta horri gehitu beharko zaio ondoren esaten dena:

1. Eraskinak dioenari jarraiki, maileguak eta aurrerakinak direla eta hartu den zorrak, 1995eko abenduaren 31n, 72.876.494 pezeta jotzen du. Hala ere, badira 5.676.764 pezeta jotzen duten bi mailegu, amortizazio plana edo polizei buruzko agiririk ez dutenak. Hau honela izanik ere 1995eko abenduaren 31ko ordaindu gabeko saldoaren berrespena lortu dugu entitate finantziario zordunari egin genion informazio-eskaeraren ondorioz.

1995eko ekitaldiko zama finantziarioak honako zenbateko hauek eduki ditu:

	Pezetak
Zorra amortizatzeagatik	6.882.583
Korrituengatik	7.370.452
Guztira	14.253.035

Beraz, uste dugu Udalaren egoera ekonomikoa ez bada aldatzen eta zorren epe-mugei buruz daukagun informazioaren arabera, Udalak etorkizuneko ekitaldietan aurre egiten ahal diela pasibo horiei.

V.3. UDALAREN MENPEKO ERAKUNDEAK.

II. Atalean aipatzen dugun Zaharretxea alde batera utzita, ez da Udalaren menpeko beste erakunde autonomorik. Iritsi zaigun informazioaren arabera, zaharretxe horrek aldatu egin du 1995 urtean zehar bere irudi juridikoa, hemendik aurrera Udalaren menpeko erakunde autonomoa izateko, eta bere kontuak Udalaren kontuen barruan joango dira datorren ekitalditik aurrera. Hau guztia kontuan hartuz, 1996ko ekitaldiko aurrekontuak onartu dira.

V.4. BESTE HAINBAT IRUZKIN OROKOR.

V.4.1. Kontabilitate eta Administrazio jardunbideak.

Kontabilitate eta administrazio zirkuiturik garrantzizkoenen jardunbide idatzirik ez dago, eta langile bakoitzari zer eginkizun eraman behar duen aurrera ez zaio izendatzen.

Gure gomendioa da barneko administrazio eta kontabilitate-jardunbideak definitzea: erosketak, nominak, kobrantzak eta ordainketak, langile bakoitzak zer lan egin behar duen eta bere eginkizunak

zunak zein erantzunkizunak zehaztu behar direlarik.

V.4.2. Ondasun higiezinak eta herri ondasunak.

Udalak ez ditu erregistratuta ez eta eskrituratu ere bere ondasun higiezin eta herri ondasun guztiak Jabetza Erregistroan.

Gure gomendioa da Udalak behar diren neurriak hartzea bere ondasun guztiak Jabetza Erregistroan eskrituratu eta izena emanda izan daitezzen.

V.5. HAINBAT INTERESGUNE BEREZI.

V.5.1. Langileen ordainketak.

Hona hemen langileen kapituluaren xehetasuna 1995 urtean:

Kitatutako betebeharrak (pezetak)	
Oinarrizko ordainketak	17.683.148
Beste hainbat ordainketa	2.002.259
Familiaren osagarria	797.943
Espezieko ordainketak	36.000
Lan kontratupeko langileak	3.456.143
Aseguru sozialak	1.789.787
Klase pasiboak	21.559.787
Guztira	47.325.067

Langileen kapituluaren azaltzen diren aitorturiko betebeharrak aitortzen diren gastu guztien ehuneko 17 egiten dute.

Laburbilduz, 1995eko abenduaren 31n Udalean lan egiten duten langileak honako hauek dira:

Funtzionarioak	7
Aldi baterako lan kontratupekoak	2
Guztira	9

Funtzionarioak honela sailkatzen dira:

Idazkaria	1
Administrari ofiziala	1
Administrari laguntzailea	1
Udaltzaina	1
Menpekoak	3
Guztira	7

Gordailuzaintza Udalak berak kudeatzen du.

Udalak ez du langileen organigramarik, eta idatziz ez da inon ageri langile bakoitzak zer lan egin behar duen, eginkizun anitzak dituzten funtzionarioen salbuespenarekin. Edonola ere, 2. eraskinean biltzen da Udalaren gutxi gora beherako organigrama zein den.

Arlo hau egin eta kontabilizatzeko segitu diren jardunbideen azterketatik abiatuz, honako hauek ikusi ahal izan dira:

- Nomina egin eta kontabilizatzeko jardunbideak ez dira idatziz inon jasotzen.

- Funtzionarioentzako nominen erreziborik ez dago, nahiz eta nominaren urteko laburpenak egiten diren.

- Ez da langile bakoitzarentzako langile hau ukitzen duten agiri administratibo guztiak biltzen dituen espedienterik.

- Udalarekin lan-harremana daukaten pertsona guztiak behar den kontratua izenpetuta daukate, eta plantilan sartzea indarrean dagoen legeen arabera gertatu da.

- Lan kontratupeko langileen nominaren kontabilizatzeari honela egiten da:

a) Nomina hilabetero kontabilizatzen da, modu honetan: soldata gordina ken langilearen konturako Gizarte Segurantzako kuota, Data liburuko ordain-agindu baten bidez. PFEZri dagozkion zenbatekoak ABIL liburuan kontabilizatzen dira hilero.

b) PFEZko atxikipekak Ogasunean sartzen diren unean, hiru hilabete behin, ABIL liburuan ordain-agindu bat egiten da, atxikipekak guztiak egiten duten bestekoa.

c) Langilearen nola Udalaren konturako kotizazioak Gizarte Segurantzako Diruzaintzan sartzen diren unean, hilabete behin, Data liburuan ordain-agindu bat egiten da, ordaindu beharreko zenbatekoak jotzen duen bestekoa.

Kontabilizatzeko modu honen ondorioz Data liburuan biltzen da Udalaren konturako langileen eta Gizarte Segurantzaren gastuak jotzen duen guttia.

Lehen egindako iruzkinak kontuan hartuz, gure gomendioak honako hauek dira:

- *Organigrama definitzea era langile bakoitzak bete behar dituen eginkizunak idatziz izendatzea.*

- *Nominak egin eta kontabilizatzeko garaian jarraitu beharreko jardunbidea zein den idatziz ezartzea.*

- *Funtzionario bakoitzarentzako hilabeteko nomina prestatzea.*

- *Langile bakoitzaren espedientea osatzea.*

- *Udalaren konturako Gizarte Segurantzako gastua eta lan kontratupeko langileen nominaren kontabilizatzeari zenbateko gordina adieraziko zuen apunte bakarrean egin beharko litzateke, Data liburuan eta bere kontabilitate-agiriarekin. Langilearen konturako PFEZ atxikipekak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ABILeko errubrikan erregistratu beharko lirateke, bere kontabilitate-agiriarekin.*

V.5.2. Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea.

Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostek gastu guztiaren ehuneko 19 egiten du, ondoren esaten denaren arabera:

Kitatutako betebeharrak (pezetatan)	
Bulegoko gastuak	6.091.485
Higiezinetak gastuak	12.496.724
Zerbitzuak funtzionatzeko gastu bereziak	25.343.721
Inbertsioen ohiko zaintza eta konponketa	7.073.665
Beste hainbat gastu	825.056
Guztira	51.830.651

Jardunbideak eta kontabilizatu diren zenbatekoak berraztertu eta gero, hona hemen ikusi duguna:

- 1995eko ekitaldian egin den eragiketen mozketak ez da egokia izan. Gure azterketan ikusi ditugun kontzeptuen zenbatze gutxi gora beherakoak datu hauek ekarri ditu. 1995 urtean lehengo ekitaldiei zegozkien 689.000 pezeta erregistratu dira, eta 1996 urtean 1995 urteari zegozkien 2.089.000 pezeta kontabilizatu dira.

- Kitatu diren betebeharrak aurrekontuen mugak gainditu dituzte aurrekontu-kontusailen aldaketarik onartu gabe.

Lehen lerroaldean esandakoaren arabera, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren betetzearen gastuak sortzaren arabera kontabilizatzeari, eta gastu guztiaren aurrekontu-egozpena beren egiazko izaera ekonomikoaren arabera egitea.*

- *Beharrezkoa denean, behar diren aurrekontu-aldaketak gauzatzeari.*

V.5.3. Inbertsio errealak.

Kapitulu honek 136.095.385 pezeta jotzen duten aitorturiko betebeharrak biltzen ditu, honek gastu guztiaren ehuneko 49 egiten duelarik. Kapitulu honen betetzeak behin betiko aurrekontu guztiaren ehuneko 85 egiten du.

1995eko ekitaldian egin diren inbertsioen xehetasuna ondoren ematen dena da:

Kitatutako betebeharrak (pezetatan)	
Zaharretxea zaharberritzea	
Eraikina zaharberritzea	1.439.141
Fatxada zaharberritzea	8.342.083
Haltzariak eta sukaldea	8.071.111
Ordainsariak	3.586.990
Beste hainbat	395.471
Guztira	21.834.796
Jubilatuen kluba	26.381.242
Saneamendu-sareak	74.658.180
Beste hainbat	13.221.167
Guztira	136.095.385

V.5.3.1. Zaharretxea zaharberritzea.

Idazati honetan Zaharretxea zaharberritzean egin diren hainbat obra biltzen dira: eraikina zaharberritzea, fatxada zaharberritzea eta sukaldea zein altzariak paratzea.

Obra hau 1995eko ekitaldian bukatu zen eta 1994koan hasi. Urte honetan egin zen obra-bolumenik handiena. Esleitu eta kontabilizatutako zenbatekoak honako hauek izan dira:

Kitatutako betebeharrak (mila pezetakotan)					
Obra	Esleitua	Esleituaren gain.			Esleituaren gain. %
		1994	1995	Guztira	
Eraikina zaharberritzea	58.892	72.767	1.439	74.206	26

Kontratazio espedientea 1994ko otsailaren 9an onartzen da, eta esleipen-jardunbidea enkantea da. Behin betiko esleipena 1994ko martxoaren 2an egin zen, zuinketa egiaztatzeako akta eta obraren hasierako eguna 1994ko matxoaren 16 izan zelarik.

Obra honi dagozkion agiriak berraztertu eta gero, hona hemen zer ikusi ahal izan dugun:

- Espedientean ez dago kontratistari eskatu behar zitzaion behin-behineko bermearen egiaztargiria.
- Espedientean ez da esaten obrak noiz hasi ziren.
- Ezin izan dugu aztertu Udalaren eta kontratistaren arteko kontratua, berau ez baitzegoen espedientean.
- Urte aniztetako gastu-espedientea ez da onartu.

Obra 1994ko martxoaren 2an esleitu zen, zenbatekoak 58.891.638 pezeta jotzen zuelarik. Azken egiaztargiria eta kitapena 1995eko urtarrilaren 15ekoa da. Egiaztargiri guztiek 74.206.571 pezeta jotzen dute, hau da, esleitu zen zenbatekoa baino 15.000.000 pezeta gehiago, gutxi gora behera. Gainditze hau arrazoitzeko ematen den zioa da obrak egin bitartean aztarna arkeologiko batzuk kausitu zirela, eta honek proiektuaren kostua handiagotu zuela. Hala ere, kontratazio-espedientean ez da jasotzen egin behar zen aldaketa bideratu eta onartu zenik.

V.5.3.2. Jubilatuen kluba.

Nafarroako Gobernuak lagundu du diruz obra hau, kostuaren ehuneko 77 bere gain hartuz. Obraren barruan jubilatuen kluba eraikitzea eta ekipatzea sartzen dira. Jubilatuen kluba eraikitzeari buruzko espedientea aztertu dugu, berau baitzen bolumenik handiena zuena.

Obra	(pezetatan)		
	Esleitua	Kitatutako betebeharrak	Esleitutak. gain. %
Jubilatuen kluba	17.190.520	20.719.521	21
Ekipamendua	4.682.495	4.829.636	3
Beste hainbat	–	832.085	–
Guztira	21.873.015	26.381.242	21

Jubilatuen klubeko lizitazio-aurrekontuak 17,8 milioi pezeta egiten zuen, eta kontratatzeako modua zuzeneko esleipena izan zen, hainbat kontratistari parte hartzeako gonbidapena egin zitzaio-larik.

Behin betiko esleipena 1994ko abenduaren 13an egin zen, eta esleipena egiteko irizpidea merkeena aukeratzea izan zen. Obren hasierako zuinketa egiaztatzeako akta egun horretakoa da.

Obrari buruzko agiriak berraztertu eta gero, honako gauza hauek ikusi ahal izan ditugu:

a) Baldintza administratiboen orrian:

- Ez da berariz jasotzen BEZa prezioaren barruan ote dagoen.
- Ez da esaten lizitatuzaileen eskaintzak zer baldintza aldaraz ditzakeen.
- Ez esaten aurrekontu-krediturik ote dagoen.

b) Espedientean ez da jasotzen kontratistak inolako fidantzarik jarri ote duen.

c) Kontratuan ez da esaten prezioak berrikusten ahal ote diren.

d) 1995eko martxoaren 15ean egiten da behin-behineko harrera-akta. Alabaina, espedientean ez da jasotzen behin betiko harrera-akta.

e) Obraren esleipenak 17.190.520 pezeta jotzen du. Azken egiaztagiria 1995eko apirilaren 12an egiten da. Egiaztagiri guztiek 20.179.521 pezeta egiten dute, hau da, gastua gairitu da eta 3.529.001 pezeta gehiago da, beharrezkoa den aldaketa-espedienterik egin ez delarik.

V.5.3.3. Saneamendu-sareak berritzea.

Obra honek 74.568.000 pezeta jotzen du eta zenbateko honek ekitaldiko inbertsio errealean ehuneko 55 egiten du.

Obra 1995eko ekitaldian bukatu zen, baina jatorria 1993 urtean dauka, orduantxe onartu baitzen proiektua, 1993ko abenduaren 28an, hain justu.

1993ko abenduaren 29an kontratazio-espedientea onartzen da, kontratazio modua enkantea izango dela erabakiz, lizitazioaren zenbatekoak 104,4 milioi jotzen zuelarik.

1994ko ekainaren 28ko Osoko Bilkurak obrak Levelling-1, S.L. enpresari behin betiko esleitzea erabakitzen du, aurkeztutako eskaintzaren prezioa aintzat hartuz, batez ere -75.339.690 pezeta-, eskaintza honek lizitazio-prezioa ehuneko 28,75 jaitea ekartzen baitzuen, nahiz eta, Osoko Bilkura haren aktan jasotzen den bezala, "propo-samena ausarkeriazko beherakada delakoaren barruan sartzen da, enpresaren azalpenak entzun eta txosten teknikoak ikusi ondoren, normaltasunez bete beharrekotzat jotzen da..."

Zuinketa egiaztatzeko aktak zazpi egun beranduagoko data du, 1994ko uztailaren 5eko, eta hantxe baimentzen da obren hasiera eta betetzeko epea.

Obra honen agiriak berraztertu eta gero honako hau ikusi ahal izan dugu:

- Esleipenak hainbesteko baja baitzuen, Osoko Bilkurak fidantza handiagotu zuen, eta hau igaro zen ehuneko 4 izatetik ehuneko 10 izatera. Alabaina, kontratistak ez zuen sekula fidantza hau jarri.

- Uztailaren 5eko data duen zuinketa egiaztatzeko Aktak obrak hasteko baimena ematen duen arren, espedientean ez da Obren Hasierako Akta jasotzen, ez eta benetan noiz hasi ziren ere.

- Ezin izan dugu aztertu Udalaren eta kontratistaren artean egindako kontratua, berau ez baitago espedientean.

- Urte anitzetako gastu-espedientea ez da onartu.

Ekitaldi bakoitzean kontabilizatu diren zenbatekoak honako hauek izan dira:

(pezetatatan)			
Obra	Esleitua	1994an kontabilizatua	1995ean kontabilizatua
Sareen zaharberritzea	75.339.690	315.000	74.658.180

Enpresa esleipendunak ordainketen etendura aurkeztu zuen 1995eko irailaren 7an. Nahiz eta hau honela den, enpresa horrek bukatu zituen obrak, eta behin-behineko harrera-aktak 1996ko urtarrilaren 13ko data du. Behin betiko Harrera-akta ez da oraindik egin, Baldintza Administrazioaren orrian ezartzen den urtebeteko berme-epea ez baita oraindik bukatu.

Enpresa esleipendunak hainbat lan kontratatu zizkion atzera berriz alde hartako zenbait enpresari. Ordainketa etenduraren ondorioz eta zorrak kobratzea ezinezkoa zenez, birkontratastea hauek euren zorren aurreko erreklamazioa aurkeztu zuten Udalaren aurrean, Kode Zibileko 1.597 artikulua ezartzen duenaren babesean.

1995eko irailaren 30ean Osoko Bilkurak erabaki zuen enpresa esleipendunak birkontratasteekin zeuzkan zorrak ezagutzea, zorra hauen zenbatekoak 9.610.000 pezeta jotzen zuelarik, eta zor hauek kitatzeko konpromezua hartzen zuen hiru baldintza hauekin:

1. Erabakia epaitegi batek berrets zezan, bere izaera irmo eta errekurrituezina ezarriz.

2. Zorraren muga Fiteroko Udalak enpresa esleipendunarekin zeukan zorrarena izango zen.

3. Zorra ordaintzeko baldintza izango zen enpresa esleipendunak obrak bermatzea, obren baldintza orrian ezartzen den bezala.

Hamargarren eta azken obra-egiaztagiriak 1995eko urriaren 27ko data dauka eta obraren zuzendaritzak baizik ez du izenpetzen. Zenbatekoa 4.999.569 pezeta da. Gainerako egiaztagiriak ordaindu egin dira. Udalak azken egiaztagiri hau behin betiko fidantza moduan hartu du, hasieran ez baitzen kontratazioaren prezioaren ehuneko 10 fidantza bezala jarri.

Enpresa esleipendunak errekurritu egin du Osoko Bilkuraren 1995eko irailaren 30eko erabakia, uste duelako ordainketa etenduraren jardunbideak bere menean hartu behar duela erreklamazioa eskatera.

Oraingoz ez da horri buruzko epairik eman, eta Udalak ez du birkontrastei agindutako ordainketatik bat bera ere egin.

Inbertsioari buruzko atal honetako gainerako lerroaldeetan idatzirikoa kontuan hartuz, hona hemen gure gomendioak:

- *Kontratuei buruzko Foru Legea zorrotz aplikatzea, baita kontratazio publikoari buruzko gainerako arautegiak ere, obra-espeditenteek eduki behar duten informazio guztia eduki dezaten.*

- *Inbertsioak egoki beteko direla bermatzen duten barne-kontrolako mekanismoak ezartzea, inbertsioak behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren oinarrizko legezko eta jardunbidezko gorabeherak aintzat hartuz, bai arrazozikotasun era ekonomiaren alderditik nola legezkoatasun hatsapenaren alderditik ere.*

V.5.3.4. Beste hainbat inbertsio

Berraztertu ditugun jardunbideak eta kontabilizaturiko zenbatekoak ikusi eta gero, hona hemen zer aurkitu dugun:

- 1995eko ekitaldian eragiketen mozketak ez zen egokia izan. Gure azterketan atzeman dugu 1995 urtean erregistratu direla aurreko ekitaldiei dagokien 1.705.000 pezeta, gutxi gora behera.

Aurreko lerroaldean esandakoaren arabera, hona gure gomendioak:

Aurrekontuaren betetzean gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatzea.

V.6. OHIKO TRANSFERENTZIAK.

Kapitulu honek 23.844.432 pezeta jotzen duten aitorturiko obligazioak biltzen ditu, eta hau gastu guztiaren ehuneko 8 da.

Berraztertu ditugun jardunbideak eta kontabilizaturiko zenbatekoak ikusi eta gero, hona hemen zer aurkitu dugun:

- 1995eko ekitaldian eragiketen mozketak ez da egokia izan. Hau da, 1995 urtean erregistratu dira aurreko ekitaldiei dagokien 1.316.000 pezeta, gutxi gora behera.

- Kitaturiko betebeharrak aurrekontuen mugak gainditu dituzte, behar den aurrekontu-kredituen aldaketa egin ez delarik.

Aurreko lerroaldeetan esandakoaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Aurrekontua betetzean gastuak sortzapenaren arabera kontabilizatzea, gastu guztien aurrekontuegozpena gastu horien benetako izaera ekonomi-

koaren arabera egitea, eta beharrezkoa denean behar diren aurrekontu-aldaketak egitea.

V.7. ZERGAK.

Zuzeneko zergetan 27.954.842 pezeta jotzen zuten eskubideak kitatu dira, zenbateko honek dirusarrera guztien ehuneko 10 egiten duelarik. Bere baitan honako hauek biltzen dituzte: landa-kontribuzioa, hiri-kontribuzioa, lizentzia fiskala eta abereengatik kontribuzioa, denak igortzen direla kobratzeko errezibo berean 1995 urtean.

Zeharkako zergetan 6.440.043 pezeta jotzen zuten eskubideak kitatu dira, zenbateko honek dirusarrera guztien ehuneko 2 egiten duelarik. Bere baitan honako hauek biltzen dituzte: zirkulazio zerga eta hegalkina, lurzorua eta lurrazpia erabiltzearen gaineko kanona.

Berraztertu ditugun jardunbideak eta kontabilizaturiko zenbatekoak ikusi eta gero, hona hemen zer aurkitu dugun:

- Borondatez ordaintzeko epea bukatu eta gero ez da luzapenarengatik gainkargurik kobratzen.

- Agente betearazlearekin ez da kontraturik egin eta ez zaio fidantzarik eskatu.

Aurreko lerroaldeetan esandakoarekin bat etorritik, gomendio hauek emango ditugu:

- *Luzapenarengatik behar diren gainkarguak kobratzea, borondatezko epea bukatu eta gero.*

- *Agente betearazlearekiko harremana legezko bihurtzea, kontratuei eta fidantzari dagokienean.*

V.8. TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK.

Udalbatzak onartutako ordenantzen arabera biltzen dira. Honengatik kitatu diren eskubideek 45.494.653 pezeta egiten dute, konpuru honek dirusarrera guztien ehuneko 16 egiten duelarik. Kontzeptu honen barruan ondoko hauek biltzen dira: ur-horniduraren tasak, piszinen kuota, hirigintza-lizentziak, kalea eta lerro elektrikoak erabiltzeagatik tasak, herrilurren aprobetxamendua.

Arlo honetan aplikatu diren kontrolako jardunbideak eta kontabilizatu diren zenbatekoak honako hauek ikusi ditugu:

- Erroldetan ez dauden zenbait tributuen bidezko dirusarreraren kobrantza arautzen duten ordenantzarik edo eta arau idatzirik ez dago. Tasa hauek, adibidez: kalea erabiltzearena, agiriak ematearena, argitalpenak saltzearena, basozainena eta estolderiarena.

- Ur horniduraren tasak direla eta, Udalak ez du erregistratzen saneamenduaren kanonaren BEZa "Aurrekontuaren Balio Independiente eta Laguntzaileak" bezala.

- Badira zuzenak ez diren egozpenak, eta horien artean honako hau bereziko dugu: Zaharretxeari ematen zaion diru-kopurua, 8.071.000 pezeta jotzen duena, zaharretxea zaharberritzeko egin beharreko inbertsioetarako. Diru-ekarpen hau "Aprobetxamendu komunalak eta beste hainbat dirusarrera" bezala erregistratu da, eta "Kapital transferentziak" izenekoaren barruan joan beharko zuen.

- 1995eko dirusarrera-aurrekontuaren kitapenean, tasak eta bestelako dirusarrera izeneko epigrafean bildu dira 1994ko ekitaldian eta are aurrekoagoetan sortu ziren zenbait dirusarrera. Bestalde, 1995eko ekitaldian sortu ziren hainbat dirusarrera ez da sartu.

Egindako lanaren arabera, hona hemen hauen guztien zenbatzea gutxi gora beherakoa:

- 1994ko ekitaldian eta are aurrekoagoetan sortuak eta 1995eko kontabilitatean erregistratuak:

	Pezetak
Tasak lerro elektrikoak erabiltzeagatik	396.538
Tasak ur-hornidurarengatik	1.767.608
Beste hainbat	1.032.370
Guztira	3.196.516

- 1995 urtean sortuak era 1996ko kontabilitatean erregistratuak:

	Pezetak
Tasak lerro elektrikoak erabiltzeagatik	528.301
Tasak ur-hornidurarengatik	2.487.200
Beste hainbat	545.024
Guztira	3.560.525

- Zenbait ordainagiriren agirizko euskarria ez da nahikoa.

Esanak esan, hona gure gomendioak:

- *Behar diren ordenantza guztiak onartzea tasa guztiak behar bezala araututa egon daitezen.*

- *Aurrekontuaren betetzearen dirusarrera guztiak sortzapenaren arabera kontabilizatzea eta aurrekontuari beren izaera ekonomikoaren arabera egozte.*

- *Kontabilitate-agiriekin beti edukitzea behar bezalako agiri-euskarria.*

- *"Aurrekontuaren Balio Independiente eta Laguntzaileak" kontzeptuen erregistro egokia.*

V.9. OHIKO TRANSFERENTZIAK.

Kapitulu honetan kitatu diren eskubideek 63.928.863 pezeta jotzen dute, hau dirusarrera guztien ehuneko 22 delarik. Honako gauza hauek biltzen ditu: Funtzionarien Montepioaren finantziazioa, Toki Ogasuneko Probintziako Fondoan parte hartzea eta lurralde-erakundeen beste hainbat ohiko dirulaguntza, baita Estatuaren tributuetan parte hartzea ere.

Aplikatu diren kontrol-jardunbideak eta arlo honetan kontabilizatu diren zenbatekoak aztertutik, honako hau ikusi dugu:

- Dirusarrera-aurrekontuaren kitapenean 1994ko ekitaldian eta are aurrekoagoetan sortu ziren zenbait dirusarrera sartu da, eta, beste alde batetik, 1995eko ekitaldian sortu ziren beste hainbat dirusarrera ez da sartu.

Egindako lanaren arabera, hauen zenbatze gutxi gora beherakoa honako hau dateke:

- 1994ko ekitaldian eta are aurrekoagoetan sortuak eta 1995eko kontabilitatean erregistratuak:

	Pezetak
Estatuaren tributuetan parte hartzea	1.281.398
Dirulaguntzak	1.194.108
Toki Ogasuneko Probintziako Fondoan parte hartzea	1.642.496
Guztira	4.118.002

- 1995 urtean edo aurrekoetan sortuak era 1996ko kontabilitatean erregistratuak:

	Pezetak
Estatuaren tributuetan parte hartzea	1.411.400
Dirulaguntzak	2.250.606
Guztira	3.662.006

V.10. KAPITAL TRANSFERENTZIAK.

Kapital transferentziekin 96.045.177 pezeta jotzen dute, zenbatekoa hau dirusarrera guztien ehuneko 34 delarik. Hemen biltzen dira obrak egiteko dirulaguntzak. Dirulaguntza hauek honela adieraz ditzakegu:

Kitatutako eskubideak (pezetatan)	
Monastegiko fatxada zaharberritzea	20.854.526
Zaharretxea handiagotzea	28.861.636
Jubilatuen kluba	16.500.000
Beste hainbat saneamendu-sare	29.829.015
Guztira	96.045.177

V.11. FINANTZA-PASIBOEN ALDAKETA.

Hemen aurrekontuaren betetzeak 6.883.000 pezeta egiten du, eta hau betetze guztiaren ehutako 2 da.

Gure azterketan honako hau ikusi ahal izan dugu:

- Guztira 5.676.764 pezeta jotzen duten bi maileru badaude. Ez dute amortizazio-planari buruzko agiririk edo polizarik.

- 1995eko ekitaldian eragiketen mozketak ez egokia gertatu da; 592.000 pezeta 1995 urtean erregistratzen dira 1994 urteari dagozkion arren. Diru honen jatorria da maisuen etxeen gainean zegoen hipoteka amortizatu egin dela.

Goian esandakoa kontuan hartuz, hona gure gomendioa:

Aurrekontua betetzean gastuak sortzapenaren arabera kontabilizatzea.

1. Eraskinean ikusten ahal da Fiteroko Udalak itzuli behar dituen maileguen zerrenda.

V.12. BESTE HAINBAT ARLOTAKO GOMENDIOAK.

Ondoren beste hainbat arlo ukitzen duten gomendioak datoz.

V.12.1. Korrituak.

1995eko gastuen aurrekontuaren kitapenean 1994ko ekitaldian sortu ziren hainbat gastu bildu da, nahiz eta gastu hauen zenbatekoa ez den oso handia.

Gastuak sortzapenaren arabera kontabilizatzea gomendatzen dugu.

V.12.2. Ondare dirusarrerak.

Kontabilizatu ditugun zenbatekoak eta berraztertu ditugun jardunbideak ikusirik, baieztatu dugu ez dela kontraturik egiten Udalaren eta Udalarenak diren hainbat eraikin errentan hartzen duten maizterren artean.

Gure gomendioa da Udalak errentan uzten dituen eraikinen gaineko kontratua egin dezan.

V.13. DIRUZAINZTA.

Arlo honetan egin dugun berrazterketatik abiatuz jardunbideetan hainbat akats dagoela ikusi ahal izan da, eta gure ustea da akats hauek zuzendu beharko lirakeela ondoren adierazten diren gomendioak aplikatuz:

- *Funtzionamendua arautzen duten arauak zehaztea eta idatziz jasotzea.*

- *Hilero kontaketa-aktak egitea, udal-diruen erantzunkizuna duenak izenpetuta.*

- *Entitate finantzerioetan mantentzen diren fondoekin diruzaintza-berdinkatzeak egitea, hauek ere hilero. Berdinkatze hauek Udalaren diruen erantzunkizuna dutenek dokumentatu eta izenpetu beharko lukete.*

V.14. AURREKONTUAREN BALIO INDEPENDIENTE ETA LAGUNTZAILEEN LIBURUA (ABIL).

Kontabilitatetik kanpoko eragiketak eta aurrekontuan sar ezin daitezkeen balio edo fondoak –sar ezin daitezkeenak Udalarentzat ez direlako gastu, ez dirusarrera–, Udalak dirua bildu edo gorde besterik ez baitu egiten, ABIL honetan bil-tzen dira.

Liburu honetan erregistratu diren kontzeptuak eta zenbatekoak berraztertu eta gero atzeman dugu Udalak egiten dituela bertan bakar bakarrik aipatu eragiketa horiei dagokien oharra.

Liburu honen izaera kontuan hartuz, ekitaldian izaten diren emaitzak diruzaintzakoak dira.

Alabaina, gure lana bete ahala ikusi dugu fidantzen epigrafean ondorengo oker hauek dau-dela:

- Aurreko ekitaldietatik datozen fidantzak. Fidantza hauen kopurua 998.500 pezeta da, eta honez gero Udalak itzulita beharko lukete, euren jabeen esku, alegia.

- 1990 urtean auzoko batek 1.000.000 pezeta eman egin zion Udalari. Diru hau Ohiko Aurrekontura pasatu behar zen.

Goian ikusitakoaren arabera, hona gure gomendioak:

- *Epigrafe hau osatzen duten kontusailen azterketa zehatza, Aurrekontuan sartzeko beratu ukitzen dutenak, ABIL liburuan euren apuntea egin behar.*

- *Kutxa-kontaketak, diruzaintzaren koadratzeak eta banku-berdinkatzeak hilero egitea, hauek denak idatziz jasoz. Kontrol sistemak ezartzea,*

berdinkatzeetan sor litezkeen diferentziak atzeman eta zuzentzeko.

V.15. HIRIGINTZA.

Fiteroko Udala saiatzen ari da 1987ko maiatzean behin betiko onartu zituen Arau Subsidia-rioak 1994ko Lurraldearen Antolamendu eta Hiri-gintzari buruzko Foru Legeari egokitzen.

Udalak ez du udalaren lurzoru-ondarea eratu.

Gogorarazi nahi da, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, derrigorrezkoa dela udalaren lurzoru-ondarea eratzea. Ondoren aipatzen diren hauek osatuko dute lurzoru-ondarea: hirigintza-plangintzak hiri-lurzoru edo urbanizagarri programatua bezala sailkatzen dituen ondare-ondasunak, lagapenen bidez lorturikoek, lagapena diruz edo lursailaz egin delarik ere, edozein mota-tako hirigintza-desjabetzeren ondorio direnek eta

eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidea betetzearen ondorio direnek.

Udal Ondarearen inbentarioa 1991 urtean egin zen.

Gure gomendioa da Udal Ondarearen inbentarioa gaurkotzea, eta berau kontrolatzeko azpisistema bat eratzea ere.

V.16. KONPROEMZUAK ETA GORABEHERRAK.

Fiteroko Udala abalemaile solidarioa da Cintruenigo eta Cascanteko Udalekin batera Cascante, Cintruenigo eta Fitero Udalen Ur Mankomunitatearen izenean dagoen eragiketa finantziero batean. Eragiketa honek 1995eko abenduaren 31n 39.088.458 pezeta jotzen du.

Iruñean, 1996ko azaroaren 4a


Kontuen Ganbarako Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

1. ERASKINA. FINANTZA-PASIBOEN ZERRENDA, 1995EKO ABENDUAREN 31N (PEZETATAN)

Mailegua/aurrerakina	Helburua	Hasierako zenbatekoa	Korrituaren %	Epe-muga	Ordaindu gabeko kapitala 95.12.31n
Banco de Crédito Local (1)	Ubidearen zoladura	11.537.810	11,50	1999	2.596.368
Banco de Crédito Local (1)	Ikastetxeko sarrerak	7.311.128	10,75	1998	3.080.126
Caja Rural de Navarra	Hirurteko Plan. obrak	25.000.000	10,50	2004	20.000.000
Caja Rural de Navarra	Hirurteko Plan. obrak	40.000.000	8,75	2005	40.000.000
Nafarroako Gobernua	Polikiroldeg. eraikuntza	18.000.000	5,00	2000	7.200.000
Guztira		101.848.938			72.876.494

(1) Maileguen polizarik ez dago

2. ERASKINA. ORGANIGRAMA 1995EKO ABENDUAREN 31N.



F: Funtzionarioa

Lk: Aldi baterako lan kontratupekoa

Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 12a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

Lehen zatia

- I. Helburua (15. or.).
- II. Entitatearen deskribapena (16. or.).
- III. Norainokoa (16. or.).
- IV. Iritzia (16. or.).
- V. Finantza-egoerak (18. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendio orokorrak (19. or.).

Bigarren zatia

- VII. Kontabilitate eta aurrekontu sistema eta barne kontrolekoa (21. or.).
- VIII. Langileen ordainketak (22. or.).
- IX. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea (22. or.).
- X. Inbertsio errealak (23. or.).
- XI. Zerga-dirusarrerak (24. or.).
- XII. Ohiko transferentziak. (25. or.).
- XIII. Inbertsio errealak besterentzea (25. or.).
- XIV. Kapital transferentziak (26. or.).
- XV. Bestelako arlo eta kapituluei buruzko gomendioak (26. or.).
- XVI. Diruzaintza (27. or.).
- XVII. Hirigintza (27. or.).
- XVIII. Toki erakunde autonomoak eta enpresa publikoak (27. or.).
- XIX. Udalaren finantza egoera 1995eko abenduaren 31n (29. or.).

XX. Konpromezuak eta gorabeherak (31. or.).

Eraskinak (32. or.).

- 1. eraskina. Erabilitako adierazleen definizioa (32. or.).
- 2. eraskina. Finantza-pasiboen zerrenda (32. or.).
- 3. eraskina. Organigrama (33. or.).

Cintruénigoko Udaleko Alkate Udalburuak aurkezturiko alegazioak. (33. or.).

LEHEN ZATIA

I. HELBURUA.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorriz, Kontuen Ganbarak sartu du bere jarduketa-programaren barruan Cintruénigoko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzieroaren eta 1995eko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren Aurrekontuaren Betetzearen fiskalizazioa.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakiokkeen legeriaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (TAFL); apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberrizteari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Nafarroako Toki Ogasuneari buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeak, 1995 urtean onartu den arren, ez du ekitaldi honen gaineko eragin egiazkorik, parterik handienak 1996ko urtarrilean hartu baitzuen indarra.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- a) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1995eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1995eko abenduaren 31n zegoen ondare eta finantza egoera azalaraztea, ezar dakizkiekeen kontabilitate-hatsapenen arabera.
- c) Udalaren eta haren menpeko erakundeentzako jardueraren ekonomiko eta finantzieroa legezketasun

hatsapenaren arabera garatu den ala ez aztertea.

d) Kontuen Ganbara honek Udal horri eta 1990eko ekitaldiari buruz egin zuen aurreko fiskalizazio txostenak (1991ko irailaren 13a, N.P.A.O.) emandako gomendioak betetzea.

II. ENTITATEAREN DESKRIBAPENA.

Cintruénigoko Udalak 5.483 zuzenbideko biztanle ditu, 1996ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera.

Gainera, hurrengo erakunde eta entitateak ditu Udalak bere jardunerako:

A) Erakunde autonomoak:

- San Francisco de Asís Patronatua
- Uraren Udal Batzarra

B) Udalak kapital sozialean gehieneko partaidetza duen toki enpresa publikoak:

• "Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.". Partaidetza: ehuneko 100.

III. NORAINOKOA.

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa programa-rekin bat, Cintruénigoko Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

1995eko urtarrilaren 1etik aitzina, Cintruénigoko Udalak informatikoki jasotzen ditu bere eragiketak, "Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA)" delakoak jarritako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren egokitzapenarekin bat.

Egindako lana, beraz, hurrengo finantza egoerak aztertzeari lotu zaio:

- Egoera balantzea 1995eko abenduaren 31n
- 1995eko emaitzen kontua
- 1995eko Aurrekontuaren betetzearen egoera

Eskuarki onartutako Sektore Publikoko kontu-ikuskaritzari buruzko hatsapenak eta arauak aplikatu dira metodologiatzat.

Antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak jorratu dira, gorabeheren arabera eta Udalari bidali zitzaion galdesortak azaleratutako arazoekin bat beharrezkotzat jotako frogak egin direlarik.

Era berean, jarraipena egin zaio 1990eko ekitaldiko udal kontuei buruzko fiskalizazio txostenen emandako gomendioen gauzatzeari.

Antzeko lana egin dugu Udaleko erakunde autonomo eta enpresen arloan: Estatutuak eta jarduteko kontabilitate eta administrazio arauak aztertu ditugu, Udaleko langileek berek betetzen dituztelarik.

Bi zatitan egituratzen da txostena. Lehena dugu txostenaren muina, helburu eta norainokoaz gain, iritzia eta gure lanaren funtsezko ondorioak ere biltzen dituelako. Bigarren zatia garatu eta osatu egiten ditu aipatu ondorioak. Oro har, Udalaren kudeaketa hobetzeko egoki iritzi dizkiogun ohar eta gomendioak biltzen ditu.

XIX. atalean jasotzen da Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen finantza egoera, hor bertan aztertzen direlarik aurrekontu betetzean eta ekonomi eta finantza egoeran eragina izan duten alderdi esanguratsuenak. Azterketa egiteko tresnatzat erabili dira, funtsean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoen Koordinazio Batzordeak Toki Sektore Publikorako onartu dituen ratio eta adierazleak. Txosten honetako 1. eraskinean agertzen dira definizioak.

Zelaiko lana 1996ko ekainean egin zen.

Cintruénigoko Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren esparruan Cintruénigoko Udalaren gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzearen egoera aztertu dugu, 1995eko ekitaldiari dagokiona. Txosten honetako V. atalean jaso dugu, udaleko erakunde autonomoei eta enpresari dagozkienekin batera

Gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako ikuskapen-arau eta prozedurak erabili ditugu gure azterketan, aurretik erabakitako helburuak kon-tuan izanik.

Gure azterketaren ondorioz, horra hurrengo iritzia:

IV.I. UDALA.

IV.1.1. Aurrekontuaren garapena eta bete-zeari buruzkoan.

1995eko aurrekontuaren betetzearen egoerak Udalak, fiskalizatutako ekitaldian eginiko eragike-ten multzoa behar bezala azaltzen badu ere, badi-ra salbuespen batzuk:

• Zuzenak ez diren aurrekontu-egozketak iza- tea, izaerari buruzkoan, nahiz eta garatu den

udal-jarduerari buruzko isla orokorraren gainean eraginik ez eduki (ikus VI. atala).

- 1995eko ekitaldiko eragiketen mozketara txarra, nahiz eta garatu den udal-jarduerari buruzko informazio ekonomiko-finantzieroa ez aldatu (ikus VI. atala).

- Hainbat dirusarreraren erresulta egotea, ekitaldi hartako huts egindakoei pasatu behar izan zitzaiena (ikus VI. atala)

IV.1.2. Ondare-egoeraren azalpena.

Udalaren kontuek behar bezala erakusten dute Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen ondare egoera, udal inbentarioaren zenbait alde egokitu beharra dagoen arren.

IV.1.3. Legezketasuna.

Inbertsio, zerga eta aurrekontu-kontabilitate arloetako arautegian hainbat ez betetze badirela ikusten da. Horietaz mintzatuko gara txosten honetan zehar, zenbait gorabehera ekar dezaketelako, inbertsioetan batez ere.

IV.1.4. Kontuen Ganbara honek 1990eko ekitaldiari zegokion fiskalizazio txostenean emandako gomendioen betetzea.

Kontuen Ganbarak honen aurretik egindako fiskalizazio txostenean emandako gomendioak abiarazteari buruzkoan:

1) Kontabilitate sistema berria ezarri dute. Horren ondoriozko hobekuntzak ditugu:

- inbentarioa egitea
- Sektore Publikoari egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra erabiltzea
- Uraren Udal Batzarraren kontuen likidazioa.

Era berean, 1995ean prozesua abiatu da:

- Kobraketak eta ordainketak bankuan helbideratzea bultzatzeko.

- Egunik gabe izenpeturiko taloirik ez onarteko abal edo fidantza moduan, bai ordea diruzko aportazioak edo banku abalak eskatzeko.

- Zinegotziendako sariak eta lanbidedunentzako ordainketak PFEZren atxikipenari lotzeko

- Obra bakoitzarendako espedientea egiteko, indarreko legeriak ezartzen dituen administrazio jarduketara guztiak jaso daitezzen.

- Kontratazio orotan dagokion abala edo fidantza eskatzeko, behin-behinekoa zein behin beti-koa.

- Landa eta hiri kontribuzioan erabiliko den karga tasa ekitaldi bakoitzerako beren beregi onartzeko.

- Dagokion kontratuari buruzkoan Agente Betearazlearen egoera legezatzeko.

- Uren Batzarra dela eta:

a) Ur horniduraren balorazioa kuota finko eta aldagarriaren bitartez egiten da.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arauak betetzea.

2) Aipatu txostenean jaso ziren hainbat gomendio indarrean dirau, hain zuzen ere VI. atalean eta hurrengoetan iruzkinduko diren kudeaketa eta kontrol prozedurei buruzkoak.

Beraz, kontabilitate arloan aurrera egiten hasi badira ere, udal kudeaketa hobetzeko barne kontrol eta azterketa bideak ezarri gabe daude oraindik.

Edonola ere, Kontuen Ganbarak aitortu egiten du Udala saiatzen ari dela kontabilitate eta aurrekontu kudeaketa hobetzen, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra 1995ean ezarri izana adibide, ahalegin handia eskatu baitio giza eta gauza baliabideak erabiltzeko orduan. Kontabilitate informazioaren kalitatea hobetu egin da jarduketa horren ondorioz.

IV.1.5. Udalaren finantza egoera 1995eko abenduaren 31n.

Cintruénigoko Udalak 1995eko abenduaren 31n duen finantza egoerari eutsiz gero, hurrengo ekitaldietan bere pasiboei aurre egiteko moduan dago.

Halaber, udal diruzaintzaren egoera egokia da epe laburrerako. Azpimarratzekoa da norbere burua finantziatzeko ahalmena, eta horrekin batera zorpetze maila, ekonomiaren aldetik gainditu behar ez den zorpetze muga edo ehunekoaren azpitik.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA UDAL ENPRESA.

Erakunde autonomoek eta Udalak parte hartzen duen enpresak kontuak aurkeztu dituzte. Kontuok Udalak berak egiten dituen arren, ez ditu aurrekontua eta kontuak onartzen.

1995eko aurrekontu eta urteko kontuen bete- tzearen egoerek behar bezala islatzen dute azte- rutiko ekitaldian burututako eragiketa multzoa. Salbuespena: 1995eko ekitaldiko eragiketen moz- keta txarra, burututako jardueri buruzko ekonomi eta finantza informazioari eragiten ez dion arren.

V. FINANTZA EGOERAK.

Cintruénigoko udalak emandako informazioa oinarritzat hartuz, horra 1995eko ekitaldiari dagozkion finantza egoerak.

Egoera balantzea 1995eko abenduaren 31n
(milaka pezetatan)

AKTIBOA		PASIBOA	
IBILGETUA	1.539.477	ONDAREA ETA ERRESERBAK	1.194.759
Materiala	1.060.193		
Inmateriala	2.045	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	16.292
Inbertsioak: azpiegiturak eta erabilera orokorreko ondasunak	476.089	ZORRAK: EPE ERTAIN ETA LUZEKOAK	278.552
Finantzieroa	1.150	Sektore publikoaren maileguak	85.418
		Sektore pribatuaren maileguak	193.134
ZORDUNAK	68.871		
Aurtengo ekitaldia	47.191	ZORRAK: EPE LABURREKOAK	122.810
Aurreko ekitaldiak	21.564	Aurten. ekit. onets. betebe. hartzeko.	116.605
Aurrekontuz kanpoko beste zordunak	116	Aurrek. ekit. onets. betebe. hartzeko.	3.396
		Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodunak	434
FINANTZA KONTUAK	86.520	Entitate publikoak	2.375
Kutxa	422		
Bankuak	86.098	EKITALDIAREN EMAITZA	82.455
AKTIBOA, GUZTIRA	1.694.868	PASIBOA, GUZTIRA	1.694.868

1995eko abenduaren 31n bukatzen den urteko ekitaldiaren emaitza kontua
(milaka pezetatan)

GASTUAK		DIRUSARRERAK	
Langileak	112.115	Salmentak	30.682
Finantzieroak	23.331	Jabetzaren eta enpresaren errentak	12.416
Zergak	100	Ekoizpenari eta inportazioari lotutako zergak	99.133
Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	85.868	Ondare eta errentaren gaineko zerga arruntak	22.011
Ohiko transferentziak	28.092	Ohiko transferentziak	155.023
Kapital transferentziak	3.524	Kapitalaren gaineko zergak	14.959
		Bestelako dirusarrerak	1.620
OHIKO GASTUAK, GUZTIRA	253.030	OHIKO DIRUSARRERAK, GUZTIRA	335.844
I. OHIKO EMAITZA (IRABAZIAK)	82.814	II. ITXITAKO AURREKONTUEN EMAITZAK (GALERAK)	359
Aurreko ekitaldietako eskubide eta betebeharren aldaketa	359		
III. EKITALDIKO EMAITZA (IRABAZIAK)	82.455		

**Gastuen Aurrekontuaren kitapena, ekonomi kapituluka
1995eko ekitaldia (pezetatan)**

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Kitatutako betebeharrak	Kitatutako ordainketak	Ordain-tzeke	Betetzearen %	Aitortutako guzt. g/%
Langileen soldatak	1	111.800.837	(349.856)	111.450.981	111.427.671	111.407.271	20.400	100	23
Ohiko ondasun. eta zerb. erostea	2	88.948.666	(1.676.322)	87.272.344	86.655.664	79.945.131	6.710.533	99	18
Korrituak	3	25.053.383	(1.722.242)	23.331.141	23.331.141	23.331.141	-	100	4
Ohiko transferentziak	4	30.473.160	(2.075.930)	28.397.230	28.092.152	20.689.136	7.403.016	99	6
Inbertsio errealak	6	198.937.821	13.306.570	212.244.391	183.856.678	111.158.573	72.698.105	87	38
Kapital transferentziak	7	5.000.000	(1.476.565)	3.523.435	3.523.435	0	3.523.435	100	1
Finantza-aktiboan aldaketa	8	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	24.695.944	26.250.000	50.945.944	50.943.942	24.693.942	26.250.000	100	10
Guztira		484.909.811	32.255.655	517.165.466	487.830.683	371.225.194	116.605.489	94	100

**Dirusarreraren Aurrekontuaren kitapena, ekonomi kapituluka
1995eko ekitaldia (pezetatan)**

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Kitatutako eskubideak	Kitatutako dirubilketak	Kobratzeke	Betetzearen %	Aitortutako guzt. g/%
Zuzeneko zergak	1	88.119.000	0	88.119.000	89.267.226	85.131.643	4.135.583	101	19
Zeharkako zergak	2	21.189.543	0	21.189.543	22.011.278	21.398.458	612.820	104	5
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	45.304.489	0	45.304.489	49.614.705	43.309.565	6.305.140	110	10
Ohiko transferentziak	4	157.521.468	111.534	157.633.002	154.947.245	150.068.776	4.878.469	98	32
Ondare-dirusarrerak	5	4.439.790	0	4.439.790	5.045.882	5.045.882	0	114	1
Inbertsio errealak besterengan.	6	22.426.000	0	22.426.000	41.347.910	33.922.910	7.425.000	184	9
Kapital transferentziak	7	37.390.543	10.774.094	48.164.637	31.250.815	26.826.444	4.424.371	65	6
Finantza-aktiboan aldaketa	8	0	21.546.316	21.546.316	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	108.518.978	0	108.518.978	85.417.739	66.007.630	19.410.109	79	18
Guztira		484.909.811	32.431.944	517.341.755	478.902.800	431.711.308	47.191.492	93	100
Aurrekontu defizita					8.927.883				

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Cintruénigoko Udalaren finantza-egoerak eta kudeaketa aztertu ondoren, ohar, ondorio eta gomendio orokorrak azaltzen ditugu. Dagozkion ataletan garatuko dira txostenean eta, hala bada, Udalaren barne antolaketa eta barne kontrola sistema hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioekin batera, hartara kudeaketa hobetzea lortu ahal izateko.

VI.I. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK (XIX.2 ATALA).

Iritziari buruzko IV. atalean esandakoarekin bat etorriz, aurrekontuaren betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

Cintruénigoko Udalaren 1995eko ekitaldiko aurrekontua 1995eko apirilean onartu zen.

Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen 1996ko ekainaren 6an aurrekontuaren betetzea.

1995eko Aurrekontua behar bezala gauzatu zen, dirusarreretan eta gastuetan izandako betetze mailak erakusten duen bezala, ehuneko 93 eta 94, hurrenez hurren.

Ekitaldian aitorturiko betebeharrak 487.830.683 pezeta jotzen dute, betetze maila ehuneko 94 delarik. Likidaturiko eskubideek 478.902.800 pezeta egiten dute, betetze maila ehuneko 93 delarik. Hortaz, aurrekontu betetzeak 8.927.883 pezeta jotzen duen defizita dauka.

Betetzearen ondorio nagusi gisa azalduko ditugu:

- Gastuen egoeran, aitorturiko betebeharren aldetik garrantzirik handiena harrapatzen duen kapitulua inbertsio errealena da, guztiaren ehuneko 38 egiten duelarik, eta honen ondoren langileen soldatak datoz, ehuneko 23 jotzen dutelarik.

• Dirusarreraren egoeran ohiko transferentziak, zuzeneko zergak eta finantza-pasiboen aldaketak nabarmentzen dira, eta hauek aitorturiko eskubi-deetan jotzen duten ehunekoak ehuneko 32, ehuneko 19 eta ehuneko 18 dira, hurrenez hurren.

Aurrekoarekin bat, gure gomendioa da:

• *Aurrekontuak legeak ezartzen dituen epeen barruan egin eta onartzea, eta azkarrago kitatzea.*

VI.2. FINANTZA-EGOERA 1995EKO ABENDUAREN 31N (XIX.I ATALA).

Udalaren finantza-egoera kaudimenduna da epe laburrera.

Zorpetze maila ehuneko 23 da, ehuneko 30ean kokatu den zorpetze mugatik beheiti.

Aurrezki gordina eta garbia positiboak dira eta horrek inbertsio eragiketak erraztuko ditu.

Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen epe luzerako zorpetzeak 279 milioi jo du. Horietarik 85 milioi Nafarroako Gobernuak industrialderako eman duen aurrerakinari dagozkio eta bertan kokatuko diren enpresen ekarpenekin berreskuratuko da. Itzulketa horrek zorpetze mugaren gutxitzea ekarriko du.

Epe laburrari gagozkiolarik, kapital ibilkorra positiboa da, hau da, Udalaren aldeko kobraketa eskubideak gehi finantza-eskuarteak Udalak epe laburrean ordaindu behar dituen zorrak baino gehiago dira. Dena den, ez da ahaztu behar XIX.1 atalean egindako oharra, alegia, epemuga 1996an duten 27 milioi pezeta inguru epe luzeko-tzat jota daudela, erabilitako sektore publikoarendako kontabilitate arauekin bat, izan ere zorrak jatorrizko egutegiaren arabera sailkatu behar dira eta ez hondarreko mugaegunen arabera.

Laburbilduz, ondoren aurkezten da Udalak abenduaren 31n zuen finantza-egoera:

	Milaka pezeta
Epe luzeko zorrak	(278.552)
Epe laburreko zorrak	(122.810)
Zordunak	68.871
Diruzaintza	86.520
Guztira	(245.971)

VI.3. UDALAREN MENPEKO ERAKUNDEAK ETA UDAL ENPRESAK (XVIII. ATALA).

Menpeko erakunde autonomoen eta udal enpresaren kontuak Udalak berak egiten dituen

arren, ez ditu haien aurrekontuak eta kontuak onartzen.

Uren Udal Batzarrak ez du zehatz mehatz aplikatzen uraren horniketa arautzen duen zerga-ordenantza eta zalantzan jar daiteke Batzar hori udal erakundearen barruko organo berezitu gisa mantendu beharra.

“San Francisco de Asís” Patronatuaren 1995eko aurrekontuaren likidazioaren betetze maila apala da egoitza ez delako guztiz beterik egon, hitzarmenaren izenpea atzeratu egin delako.

Eragiketen mozketak okerra dago.

Aurreko lerroaldeetan adierazitakoarekin bat, horra gomendioak:

• *Udalak hobetu kontrolatu ditzala erakunde autonomoak eta partehartutako enpresa hauen baliabideen aplikazio eta likidazio egokia bermatzearen.*

• *Udal ordenantza ezarritakoaren arabera ezartzea eta aztertu komenigarri ote den Uraren Udal Batzarra bere horretan mantentzea, alegia, organo berezitu gisa udal egituraren barruan. Independente gisa mantentzen bada, arau dituen estatutuak eguneratu eta osatu.*

• *Aurrekontu egozketa sortzapenaren arabera egitea, halako moldez non aurrekontu betetzearen jarraipena egiteko eta aurrekontua kudeaketa tresna gisa erabiltzeko aukera emango duen.*

Udal enpresari gagozkiolarik, haren xedea oso zehazturik ez egoteak zalantzan jar dezake erantzukizun mugatuko sozietate gisa eratzearena.

VI.4. ADMINISTRAZIO ETA KONTABILITATE PROZEDURAK (VII. ATALA).

Kontabilitate eta administrazio zirkuito behine-nei buruzko prozedura idatzirik ez dago.

Aplikazio informatikoak ez du biderik ematen gastuak sailkapen ekonomikoaren arabera biltzeko, sailkapen funtzionala baino ez da ageri.

• *Administrazio eta kontabilitateko barne prozedura oinarritzeko mugatu eta dokumentatzea gomendatzen dugu.*

• *Aplikazio informatikoa hobetzea gomendatzen dugu, gastuen kontu ezberdinak sailkapen ekonomikoaren arabera biltzeko moduan.*

VI.5. INBERTSIO ERREALAK (X. ATALA).

Arlo horretan egin dugun azterketaren ondorioz ikusi dugu industrialdeko hirigintza obrak

esleitzerakoan arau haustekak izan direla. Eskuerako txosten juridiko eta teknikoaren arabera Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen esleipena, udalbatzak onetsitako baldintzen orriak zekartzan esleipen irizpideak alde batera utzita. Osoko bilkurak, dena den, ehuneko 4tik ehuneko 15era jaso zuen fidantza.

- *Gure gomendioa da indarreko arauteria zorrotz betetzea eta Kontratuei buruzko Foru Legea eta kontratazio publikoari buruzko gainerako arautegia zorrotz aplikatzeko beharra gogorazten dugu.*

VI.6. BESTELAKO OHAR OROKORRAK.

Hainbat gastu eta dirusarreraren egozpen okerra dago, izaera ekonomikoaren arabera, eta eragiketen mozketa txarra.

Egin dugun azterketatik atera ahal izan dugu 1995eko aurrekontua hurrengo kopuruen arabera aldatu beharra zegoela:

- Aurreko ekitaldiei zegozkien gastu eta dirusarrerak jaso direnez, 1995eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak gastu eta dirusarrera gehiago sartu ditu, 2.760.000 eta 13.701.000 pezeta inguru, hurrenez hurren.

- 1995eko ekitaldian sortu eta 1995eko aurrekontuaren likidazioan sartu ez diren gastu eta dirusarrerak direla eta, likidazioari 4.282.000 eta 6.320.000 pezeta inguru, hurrenez hurren, gehitu beharko litzaizkioke.

- Kobratzeke zeuden kontusail gisa jaso dira gure ustez huts egindakoetan sartu beharrekoak, batez ere, zergadun ezezagunak direlako. Beraz, 2.910.000 pezeta kendu beharko lirakeke.

Aurreko lerroaldeetan esan dugunaren arabera, horra gomendioak:

- *Gastu eta dirusarrerak aurrekontuak kontabilizatzeko orduan sortzapena kontuan izatea, aurrekontu betetzearen jarraipena egin ahal izateko moduan.*

- *Gastu eta dirusarrerak epigrafe egokietan kontabilizatzeko, izaera ekonomikoaren arabera, aurrekontuaren betetzearen zifrak itxuraldatu ez daitezkeen.*

BIGARREN ZATIA

VII. KONTABILITATE ETA AURREKONTU SISTEMA ETA BARNE KONTROLEKOA.

Egindako lanaren ondorioz azpimarra daitezkeen gaiak dira hurrengoak:

VII.1. AURREKONTU SISTEMA.

Gastu aurrekontua sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera aurkeztu eta egiteratzen da.

Dirusarreraren aurrekontua, ordea, sailkapen ekonomikoaren arabera aurkeztu eta egiteratzen da.

Aplikazio informatikoaren ondorioz sortzen diren alde edo akats hauek ikusi ahal izan ditugu hemen:

- Gastuen sailkapen ekonomiko-funtzionalak ez du biderik ematen kontu ezberdinak sailkapen ekonomikoaren arabera biltzeko.

- Aurrekontuaren jarraipena eta exekuzioa egiterakoan, ekitaldian benetan aitortu diren eskubide eta betebeharrak ateratzen dira, eta aurrekusiaren gehiegizkoa eta konprometitu gabeko kreditua, kontu bakoitzarendako. Hala ere, kobratzeke eta ordaintzeke dauden kopuruak ez dira kapituluka zehazten.

VII.2. KONTABILITATE SISTEMA.

1995ean ezarri zuen Cintruénigoko Udalak Sektore Publikoaren Kontabilitate Plan Orokorren aplikazioa.

Aztertu ondoren, azpimarratuko dugu:

- Oinarrizko eragiketei ezarri beharreko kontabilitate irizpideak finkatu eta homogeneousko prozedura idatzirik ez dela.

- 1995ean, nominen kudeaketa eta inbentarioa ez zeudela informatikaren bidez lotuta kontabilitatearekin, ahalegin berezia eskatzen du horrek kontrola eta erregistroa egiteko. 1996an eginda dago aipatu estekadura.

VII.3. KONTUHARTZAILAZA - BARNE KONTROLA

Azterketa egin eta gero, hurrengo puntuak azpimarratuko ditugu:

- Zergadunen erroldetara buruzkoan, aldaketak ez dira inondik ere onartzen eta ez da inongo egiaztapenik egiten.

- Ez dago 1995eko aurrekontua betetzeko oinarririk, 1996ko aurrekontua betetzeko egin diren arren.

- Udalaren menpeko erakunde autonomoen aurrekontuak eta kontuen kitapenak ez dira onartzen.

Gomendioak:

- *Oinarrizko kontabilitate prozeduren eskuliburu garatzea. Hurrengoak hartuko ditu, besteak beste:*

a) *Prozedura bakoitzari ezarriko zaizkion kontabilitate irizpideak*

b) *Aldian aldiko koadraketak eta egiaztapenak egitea.*

c) *Ixteko eragiketak*

d) *Saldoen azterketa*

• *Inbentarioa eta kontabilitatea elkarri estekatzeari berrmatuko duen sistema aztertzen eta ezarri jarraitzea. Udal inbentarioa beti eguneraturik edukitzeko bidea emango luke horrek, besteak beste.*

• *Aplikazio informatikoari doiketa egokiak egitea, hurrengoak eskura izateko moduan: gastuen sailkapen ekonomikoa, likidaturiko ordainketak eta dirubilletak eta aurrekontu-kitapenean ordaintzeke eta kobratzeke dauden kopuruak, kapituluka.*

• *Udalaren menpeko erakunde autonomo guztien aurrekontuak eta kontuen kitapenak onestea.*

VIII. LANGILEEN ORDAINKETAK.

Hona hemen langileen kapituluaren xehetasuna 1995 urtean:

	Kitatutako betebeharrak (Pezetak)
Goi karguak	2.172.369
Funtzionarioak	47.521.783
Lan kontratupeko langileak	6.399.920
Enplegua ematen duenaren kontuko gizarte gastuengatik kuotak	55.333.599
Guztira	111.427.671

Langileen kapituluaren azaltzen diren aitorturiko betebeharrak aitortzen diren gastu guztien ehuneko 23 egiten dute.

Laburbilduz, 1995eko abenduaren 31n Udalean lan egiten duten langileak honako hauek dira:

Funtzionarioak	17
Lan kontratupeko finkoak	3
Aldi baterako lan kontratupekoak	3
Guztira	23

Funtzionarioak honela sailkatzen dira:

A mailakoak	1
C mailakoak	3
D mailakoak	13
Guztira	17

Udalak badu langileen organigramarik, eta idatziz erasota langile bakoitzak zer lan egin behar duen. 3. eraskinean biltzen da Udalaren organigrama.

Arlo hau egin eta kontabilizatzeko segitu diren jardunbideen azterketatik abiatuz, honako hauek ikusi ahal izan dira:

• *Nomina egin eta kontabilizatzeko jardunbideak ez dira idatziz inon jasotzen.*

• *Langileen nominak eskuz egiten dira*

• *Nominetan egin diren azterketak ez dira dokumentuetan erasotzen.*

• *Funtzionarioek ez dituzte euren nominen ordainagiriak izenpetzen*

• *Herriko jaietan langile batzuek egindako aparteko orduak ordaintzean ez da PFEZri dagokion atxekipenik egin*

• *Nomina eskuz egiten denez, aldea ikusi ahal izan dugu ordaindu diren kopuruaren eta ordaindu beharko liratekeen artean, bai nominak egiterakoan izandako akatsengatik, bai aintzanasuna esleitzerakoan izandakoengatik. Kopuruak, ordea, ez dira esanguratsuak.*

• *Langileen ordainketen 1995eko aurrekontua likidatzerakoan 1994ko ekitaldian sorturiko zenbait gastu jaso dira. Beste alde batetik, ez dira 1995eko ekitaldian sortutako gastu batzuk jaso. Kopuru horiek ez dute aldatzen udalaren jarduerari buruzko informazio ekonomikoa eta finantzieroa.*

Txosten hau eztabaidatzeko garaian, Udalak jakinarazi digu aplikazio informatikoa ezarri duela nominen jardunbidea kontabilitatean txertatzeko, langile kudeaketaren kontrol eta jarraipen prozesua hobetzea gertatuko delarik.

Aurreko lerroaldeetako iruzkinekin bat, horra gure gomendioak:

• *Nominak egin eta kontabilizatzeko garaian jarraitu beharreko jardunbidea zein den idatziz ezartzea.*

• *Langileei ordaintzen zaizkien aparteko orduetan ere PFEZren atxikipena egin beharko litzateke*

IX. OHIKO ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA.

Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erosteak gastu guztiaren ehuneko 18 egiten du, ondoren esaten denaren arabera:

Kitatutako betebeharrak (Milaka pezetatan)	
Konponketak, mantenimendua eta zaintza	11.024
Materialak, horniketak eta beste	74.944
Zerbitzuaren ondoriozko kalteordainak	687
Guztira	86.655

Materialak, horniketak eta beste, ohiko ondusunak eta zerbitzuak erosteko gastuen guztizkoarekin ehuneko 86arekin, honela banatzen da:

Milaka pezetatan	
Argindarra	19.219
Gasoleoa	2.112
Telefonoa	1.245
Aseguruak	673
Laguntza informatikoa	3.862
Herriko jaiak	16.536
Sariak	2.303
Hondakin solidoen mankomunitatea	15.784
Bulegoko gaiak	1.648
Kultura, aisialdi eta kirol jarduerak	5.144
Bestelako gastuak	6.418
Guztira	74.944

Jardunbideak eta kontabilizatu diren zenbatekoak berraztertu eta gero, hona hemen ikusi duguna:

- Gastuak ez dira kontabilizatzen ordainagiria edo egiaztagiria jaso arte.

- 1995eko ekitaldian egin den eragiketen mozketak ez da egokia izan. Gure berrazterketan ikusi ditugun kontzeptuen zenbatze gutxi gora beherakoak datu hauek ekarri ditu. 1996 urtean 1995 urtean sortutako 1.029.000 pezeta kontabilizatu dira.

- Ordainketa agindu batzuen dokumentu euskarria ez da nahikoa.

- Udalak ordaintzen dituen fakturei ez zaie "ordaindua" zigilua jartzen eta ordainketak bikoiztea gerta daiteke.

Lehen lerroaldean esandakoaren arabera, hona gure gomendioak:

- *Gastuak sortzapenaren arabera egozte aurrekontuan.*

- *Kontabilitate dokumentuekin batera egiaztatze euskarriak paratu beti.*

- *Ordainketak egiteko garaian dagokion dokumentazio euskarria aztertzea eta berehala jartzea "ordaindua" zigilua.*

X. INBERTSIO ERREALAK.

Kapitulu honek 183.856.678 pezeta jotzen duten aitorturiko betebeharrak biltzen ditu, honek gastu guztien ehuneko 38 egiten duelarik.

1995eko ekitaldiko kontusail nagusia industrialdearen hirigintza lanei dagokie. 115.527.000 pezeta inguru egiten du eta inbertsio errealean ehuneko 63 da.

Kontabilizatu diren kopuruak:

Milaka pezetatan		
1994an kitatutako betebeharrak	1995ean kitatutako betebeharrak	Kitatua, guztira
4.951	115.527	120.478

Aipatu obra bukatzeke zegoen 1995eko ekitaldia ixterakoan eta 1994an sortu zen, Udalak kontratatu zuen arkitektoak idatzitako proiektua onetsi zenean.

Lehiaketa publikoan esleitu zen obra 117.028.570 pezetatan, ehuneko 22,41 beherakadarekin. Kontratatu ziren arkitektoek emandako txostenean "beherakada ausartegi"tzat jo zuten hori. Hala ere, txostenaren arabera, eskaintza onar zitekeen obra kontratua zorrotz-zorrotza, osoa eta segurua izatekotan eta edozein gorabeherari aurre egiteko berme nahikoa sartzekotan.

Hona jarduketak:

- 1994ko uztailaren 4an onartu zuen osoko bilkurak administrazio baldintzen orria urbanizazioa kontratatzeke. Lehiaketa publikoa hartu zen kontratazio prozedura gisa.

- Kontratazio Mahaiak, 1994ko abuztuaren 29an egindako bilkuran, kontratista aukeratzeko irizpideak finkatu zituen, Orrian ezarritakoaren arabera.

- Kontratazio Mahaiak, 1994ko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako proposamenak Udalaren Osoko Bilkurari helaraztea, hurrengo oharrak eginez:

"a) Levelling-1, S.L. enpresa kanpoan uztea, beherakada ausartegiarengatik.

b) Erabakitako esleipen irizpideak erabiltzea", gainerako eskaintzak balioetsi dira, kanpoan utzitakoa kenduta.

- 1994ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkurak erabaki zuen esleipena aipatu Levelling-1,

S.L. enpresari egitea -6 boto alde, 6 abstentzio eta beste boto bat beste eskaintza baten alde-Kontratazio Mahaiaren oharrei jaramonik egin gabe. Aurkeztu beharreko fidantza, hala ere, ehuneko 4tik ehuneko 15era igo zuten.

- Esleipen hori zela eta, Udaleko Idazkariak, egun berean, oharra egin zion obra esleitzeko administrazio egintzari, esanez onartu ziren esleipen irizpideei jaramon ez egiteagatik, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legeak dakartzan deuseztasun edo deuseztagarritasun zioak zirela eta.

- Gero, esleipena egin zitzaion enpresa ordainketa-etendura aurkeztu zuen 1995eko irailaren 7an, obrak geratuta eta bukatu gabe zeudelarik 1995eko abuztuaren 23tik, Nafarroako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoaren Kolegioaren ziurtagiriak erakusten duenez.

- Hori horrela, 1995eko urriaren 19an egindako Osoko Bilkurak enpresa harekiko kontratua iraungitzeko erabakia hartu zuen, ordainketa-etendura kontratua iraungitzeko ziotzat hartuta zegoen eta baldintza orrietan.

- Aipatu enpresak errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri zuen iraungitzeko erabakia-
ren aurka.

- Ez dugu obra hartzeko behin betiko aktarik jaso, Udalak 1996an zehar obra bukatzeko ahaleginak egin dituen arren.

Obra finantzeko erabili dira:

- Nafarroako Gobernuak emandako aurrerakin itzulgarria, korriturik gabea, 85.417.739 pezeta egiten duena.

- Kontribuzio bereziak 1995eko ekitaldian: 14.958.720 pezeta.

Horra gomendioak:

- *Esleipenaren aurreko prozedura guztia azterzea beharrezko ondorioak ateratzeko, kontratazio publikoa arautzen duen foru arau multzoa behar bezala betetzen dela bermatzeko.*

- *Barne kontrol eta kontuhartzailtza bideak taxutu eta abiaraztea, inbertsioak egokiro burutzen direla bermatzeko, inbertsioak behar bezala kudeatzeak eskatzen dituen prozedurazko eta legezko alde oinarritukoak zainduz, hala ekonomiaren eta arazoizkotasunaren aldetik, nola legezkoatasun hatsapenari men egitearenetik.*

Bestelako inbertsioak

Udalak egin dituen gainerako inbertsioen dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi ahal izan dugu:

- Batzuetan, obra batzuekin lotutako dirulaguntzak lortzearen INEMen bitartez kontratatu diren langileak diruz lagundutakoez bestelako obretan aritzen dira.

- Kiroldegiaren obrak Udalak berak egin zituen, gutxi gorabeherako aurrekontua 8.986.000 pezeta zelarik. Obrak burutzeak 18.357.664 pezeta jo zuten, hasierako proiektuan agertzen ez ziren obrak egin zirelako.

Iruzkindutakoaren haritik gomendatzen dugu:

- *Diruz lagundutako obra jakin baterako kontratatu diren langileak obra horretan aritzea, dirulaguntza itzuli beharra gertatzeko arriskuari ihes egiteko.*

- *Udalak egiten dituen obrak behar bezala kontrolatu eta jarraitzea.*

XI. ZERGA-DIRUSARRERAK.

1995eko Aurrekontuaren kitapenaren arabera, hona zerga-dirusarreraren kapituluak erakusten duten betetzea, pezetatan:

Kapitulua	Behin-betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa
Zuzeneko zergak	88.119.000	89.267.226	85.131.643
Zeharkako zergak	21.189.543	22.011.278	21.398.458
Tasak eta best. dirusar.	45.304.489	49.614.705	43.309.565
Guztira	154.613.032	160.893.209	149.839.666

Zerga dirusarrerak Udalaren dirusarreraren ehuneko 34 dira.

Hurrengo koadroan erakusten da kapituluon betetzea, zerga-kontzeptuka sailkatutik:

Zerga kontzeptua	Kitaturiko eskubideak (pezetatan)	Likidatu guztiaren gaineko %
Landa kontribuzioa	11.295.682	7
Hiri kontribuzioa	53.693.168	33
Abere kontribuzioa	409.097	-
Lizentzia fiskala	23.869.279	15
	89.267.226	55
Ibilgailuen zerga	19.522.858	12
Telefonicaren kanona	2.488.420	2
	22.011.278	14
Udal zerbitzuen tasak	15.817.600	10
Hirigintza lizentziak	9.866.201	6
Iberdrolaren tasak	4.772.953	3
Bestelako tasak	19.157.951	12
	49.614.705	31
Guztira	160.893.209	100

Aipatu zerga eta tasak Udalbatzak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira.

Ezarritako kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko kopuruak aztertu eta gero, ikusi ahal izan dugu:

- 1995eko dirusarrera aurrekontuaren kitapean, zeharkako zergen eta tasak eta bestelako dirusarreraren arloetan 1994ko ekitaldian sorturiko dirusarrerak jaso dira. Beste alde batetik, 1995eko ekitaldian sorturiko zenbait dirusarrera ez dira sartu.

- Zergak kobratzeko borondatezko epea igaro ondoren, ez da luzapen gaitzargurik ezartzen, ezta kobratzen ere.

- Agente betearazleari ez zaio dagokion fidantza edo abala eskatu.

- Erroldeak eta haien aldaketak ez ditu organo eskudunak onesten.

- Dirusarrera-agindu zenbaiten dokumentueuskarria ez da nahikoa.

Egindako lanetik atera daiteken gutxi gorabeherako kontzeptu-zenbaketa hauxe litzateke:

- 1994an sortu eta 1995eko kontabilitatean jasoak:

	Pezetak
Lerro elektrikoaren okupazio tasak	771.000
Lerro telefonikoaren okupazio tasak	571.000
Guztira	1.342.000

- 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean jasoak:

	Pezetak
Zenbait tasa	245.000
Lerro telefonikoaren okupazio tasak	600.000
Guztira	845.000

Iruzkindutakoaren ondorioz, horra gomendioak:

- *Dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatzea.*

- *Kobratzeko borondatezko epea igaro ondorengo luzapen gaitzargurak indarreko legediarekin bat etorri behar du.*

- *Agente betearazlearen egoera legeztatu, dagokion fidantzaz denaz bezainbatean.*

- *Zerga dirusarreraren erroldak eta haien aldaketak onestea.*

- *Kontabilitate dokumentuekin batera egiaztagiriak egokiak paratzea.*

XII. OHIKO TRANSFERENTZIAK.

Kapitulu honetan kitatu diren eskubideek 154.947.245 pezeta jotzen dute, hau dirusarrera guztien ehuneko 32 delarik. Honako gauza hauek biltzen ditu: Funtzionarien Montepioaren finantziazioa, Toki Ogasuneko Probintziako Fondoan parte hartzea eta baita Estatuaren tributuetan parte hartzea.

Aplikatu diren kontrol-jardunbideak eta arlo honetan kontabilizatu diren zenbatekoak aztertu-rik, honako hau ikusi dugu:

- 1995eko dirusarrera-aurrekontuaren kitapean 1994ko ekitaldian sortu ziren zenbait dirusarrera sartu da, eta, beste alde batetik, 1995eko ekitaldian sortu ziren beste hainbat dirusarrera ez da sartu.

Egindako lanaren arabera, hauen zenbatze gutxi gorabeherakoa honako hau dateke:

- 1994ko ekitaldian sortuak eta 1995eko kontabilitatean erregistratuak:

Estatuaren tributuetan parte hartzea	3.248.000 pezeta
--------------------------------------	------------------

- 1995 urtean edo aurrekoetan sortuak era 1996ko kontabilitatean erregistratuak:

Estatuaren tributuetan parte hartzea	889.000 pezeta
--------------------------------------	----------------

XIII. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA.

Inbertsio errealak besterentzeagatik kitatu diren eskubideek 41.347.910 pezeta egiten dute, dirusarrera guztien ehuneko 9. Honakoak jaso dira:

	Aitorturiko eskubideak (Pezetatan)
Hiri lurzatiak saltzea	37.359.250
Industrialdeko lurak saltzea	3.888.660
Bestelako lurak saltzea	100.000
Guztira	41.347.910

Prozedurak eta kontabilizaturiko kopuruak aztertu ondoren atera ahal izan dugu:

- Udalak hiri lurzoruen salmenta bezala jaso du 25.000.000 pezeta. San Francisco de Asís Patronatuaren jabetzapeko lurren 1994ko salmentaren ondoriozko aportazioari dagozkio. Aipatu Patronatua finantzatzeko eskuratu ziren banku-maileguak lehenago amortizatzeko erabili du Udalak kopuru hori.

Gure ustez, aipatu kopuru kapital transferentzietan jasotzea litzateke egokiena.

- 7.425.000 pezeta ageri dira kobratzeke, 1995ean bi lursailen salmentaren ondorioz. 1995eko abenduaren 31n kobratzeke dago oraindik kopuru hori, salerosketa eskrituratu gabe baitzegoen artean. Txostena eztabaidatzeko garaian Udalak jakinarazi digu eragiketa hau behin betikoz kitatu dela.

XIV. KAPITAL TRANSFERENTZIAK.

Hona 1995eko ekitaldian kapital transferentzietan izan diren dirusarreraren kapituluaren zehaztasuna:

	Aitorturiko eskubideak (Pezetatan)
Estatuarenak	(17.506)
Lurralde enteenak	7.198.501
Kanpokoak	9.111.100
Kontribuzio bereziak	14.958.720
Guztira	31.250.815

Arlo honetan egindako azterketaren ondorioz ikusi ahal izan dugu:

- Estatuaren transferentzietan sartu da 1994ko ekitaldian Udalarari eman zitzaion dirulaguntza baten itzulketa.

- Kanpoko transferentzietan sartu da Eskualde Garapenerako Europako Fondoaren (FEDER) transferentzia, hain zuzen ere, Nafarroa 90-91 ekintza-programari zegozkion gastu publikoen 1991ko urterasariaren saldoari buruzkoak.

XV. BESTELAKO ARLO ETA KAPITULUEI BURUZKO GOMENDIOAK.

Ondoren jasotzen dira zenbait arlo eta kapitulu ekonomikoari buruzko hainbat gomendio.

XV.1. KORRITUEN GASTUAK.

1995eko gastu aurrekontuaren kitapenean 1994ko ekitaldian sorturiko gastuak jaso dira. Beste alde batetik, 1995eko ekitaldian sorturiko zenbait gastu ez dira sartu.

Egindako lanetik atera daiteken gutxi gorabeherako kontzeptu-zenbaketa hauze litzateke:

- 1994an sortu eta 1995eko kontabilitatean jasoak:

Maileguen korrituak	2.760.000 pezeta
---------------------	------------------

- 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean jasoak:

Maileguen korrituak	2.753.000 pezeta
---------------------	------------------

- Gastuak sortzapenaren arabera kontabilizatzeko gomendatzen dugu.

XV.2. OHIKO TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK.

- 1995eko gastu aurrekontuaren kitapenean gastu egozpen okerrak antzeman dira, funtzionamendu gastuei dagokienean.

Horra egozpen horien gutxi gorabeherako zenbatespena:

	Pezetak
Musika bandako Zuzendariarentzako saria	701.000
Jaien gastuak	773.000
Guztira	1.474.000

- Musika bandako Zuzendariaren egoerari buruz, ez da inongo harreman juridikorik zertu Udalaren eta Zuzendariaren artean, ezta lan kontraturik, ezta zerbitzu prestaziorik ere. Udalak ordainketak egiten dizkio bandako zuzendariari gastua egiaztatzeko dokumenturik gabe (nominatza/ordainagiria), eta ez zaizkio PFEZrengatik atxikipenak egin.

Esandakoaren ildotik gomendatzen dugu:

- *Gastuak izaera ekonomikoaren arabera kontabilizatzeko aurrekontuaren betetzean.*

- *Beharrezko neurriak hartzea Musika Bandako Zuzendariaren egoera alde guztietatik arautzeko.*

XV.3. UDAL INBENTARIOA.

TRACASA enpresa publikoak egin zuen 1994ko abenduaren 31ri zegokion ondare inbentarioa.

Udalak eguneratu egin du harrezkero, eta akats batzuk ikus daitezke, esate baterako:

- Kontusail bikoiztuak

- Programak ez du saldutako ondasunei baja ematen uzten, eskuz egin behar da.

Beste alde batetik, udalak ez ditu bere jabetzapeko ondasun higiezin eta komunal guztiak eskrituraturik eta Jabetza Erregistroan errolaturik.

Gomendioak:

- *Udal Inbentario egokitzea, Udalaren jabetza-peko ondasunak behar bezala erakusteko xedez.*

- *Programa informatikoa hobetu, halako moldeez non Inbentarioa kudeatzeko oinarrizko eragiketa guztiak automatikoki egingo ahal izango diren.*

- *Ondasun guztiak eskrituraturik eta Jabetza Erregistroan erroldaturik egoteko neurri egokiak hartzea.*

XVI. DIRUZAINNTZA.

Arlo honetan egin dugun azterketatik abiatuz jardunbideetan hainbat akats dagoela ikusi ahal izan da, eta gure ustea da akats hauek zuzendu beharko lirakeela ondoren adierazten diren gomendioak aplikatuz:

- *Funtzionamendua arautzen duten arauak zehaztea eta idatziz jasotzea.*

- *Diruzaintzan dagoen diruaren kontaketa-aktak horretarako propio egindako dokumentuan formalizatu behar dira, udal-diruen erantzunkizuna duenak izenpetuta.*

- *Entitate finantzieroetan mantentzen diren fondoekin diruzaintza-berdinkatzeak egitea, hauek ere hileru. Berdinkatze hauek Udalaren diruen erantzunkizuna dutenek dokumentatu eta izenpetu beharko lukete.*

- *Udal-diruen arduradunek diruzaintzaren egoera orria izenpetzea.*

- *Taloi izendunak edo zeharkatuak egitea.*

XVII. HIRIGINTZA.

Cintruénigoko Udalak baditu Arau Subsidiorioak, azterketa ekonomiko-finantzieroa eta guzti. 1981ko martxoan onartu ziren azkenekoak.

- *Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 1994ko Foru Legeari egokitzea gomen-datzen dugu.*

Udalak ez du udalaren lurzoru-ondarea eratu.

- *Gogorarazi nahi da, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, derrigorrezkoa dela udalaren lurzoru-ondarea eratzea. Ondoren aipatzen diren hauek osatuko dute lurzoru-ondarea: hirigintza-plangintzak hiri-lurzoru edo urbanizagarri programatua bezala sailkatzen dituen ondare-ondasunek, lagapenen bidez lorturikoeak, lagapena diruz edo lursailez egin delarik ere, edozein mota-tako hirigintza-desjabetzeren ondorio direnek eta*

eroslehtasun eta atzera eskuratzeko eskubidea betetzearen ondorio direnek.

XVIII. TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ENPRESA PUBLIKOAK.

Beheko laukian jarri ditugu Cintruénigoko Udalak parte hartzen dituen erakunde eta entitateak:

Izena	Izaera	Partehartzearen %
Uraren Udal Batzarra	Erakunde Autonomoa	-
San Francisco de Asís Patronatua	Organismo Autónomo	-
Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.	Erantzukizun mugatuko sozietatea	%100

Ondoren jarriko ditugu erakunde autonomoen zenbakirik behinenak:

	Uraren Udal Batzarra (pezetatan)	San Francisco de Asís Patronatua (pezetatan)
Langile kopurua	-	12
Aurrekontuko gastuak, guztira	43.338.753	153.124.000
Kitaturiko betebeharrak, guztira	43.282.753	83.499.043
Gastu aurrekontuaren g. exek. %	100%	55%
Aurrekontu dirusarrerak, guztira	34.313.445	153.124.000
Onetsitako dirusarrerak, guztira	38.818.405	79.571.311
Dirusarrera aurrekontuaren g. exek. %	%113	%52
Aurrekontu emaitza	(4.464.348)	(3.927.732)

Hona Udalak parte hartzen duen sozietatearen zenbakirik behinenak:

	Pezetak
Gastuak	10.842.224
Dirusarrerak	10.809.362
Emaitzak	(32.862)
Norbere fondoak	960.049

Arlo honetan egin dugun lanetik azpimarratuko ditugu:

a) Udalak ez ditu erakunde autonomoen eta Udalak osorik parte hartzen duen enpresaren aurrekontuak onesten.

Beste alde batetik, Udalak ez ditu onesten erakunde autonomoen kontu-kitapena ezta enpresa partaliertuaren urteko kontuak ere.

- *Gure gomendioa da Udalak beharrezko kontrola ezartzea erakunde autonomo eta enpresa partaliertuaren gainean, haien baliabideen aplikazio eta kitapen egokia bermatzeko, dagozkion aurrekontuak eta kontu-kitapenak eta urteko kontuak, hurrenez hurren, onetsiz. Hiru hilabetez behin egin beharko litzateke kontrola.*

b) Uraren Udal Batzarra

Organo berezitua da eta bere erregelamenduko 1 artikularekin bat Ur Hornidura eta Saneamendurako Udal Zerbitzuaren administrazio eta gobernu zereginak bereganatu ditu.

Azterketaren ondorioak:

- Erregelamenduak ez du guztiz argitzen nortasun juridiko berekia duen ala ez, beren beregi ematen ez bazaio ere, langileak izendatzeko eta hirugarrenekin kontratatzeko ahalmena eman baitzaio.

- Uraren Batzarraren aginpideak presio baxuko hornidurara mugatzen dira (Udalerriko goi puntutik toki sareraino), presio handiko hornidura (sare nagusitik udalerriko goi punturaino) Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitateari baitagokio.

Udaleko langileek betetzen dituzte aginpideok, Batzarrak langile berekirik ez duelako. Hala ere, Udalaren langileei aparteko orduak ordaindu beharra gertatuz gero, Uraren Batzarraren kontura ordaintzen da.

- Erregelamenduko 4. artikulua ezarri du gordailuzain-administratzailea izendatuko dutela, eta bere kudeaketaren berri emango duela urtero. Lanpostu hori bete gabe dago, eta Udalbatzako idazkariak bereganatu ditu haren eginkizunak, Batzarraren Idazkari ere delarik.

- Ur horniduraren tasa arautzeko zerga ordentzak ezinbestekotzat jotzen du fidantza ezartzea ur zerbitzua kontagailu eta guzti emateko. Ez dago erasota fidantza hori eskatu eta kobratzen denik.

- Kontabilitate dokumentuak aztertu ondoren atera ahal izan dugu 1995eko ekitaldiko aurrekontua kitatzerakoan 1994an sortutako dirusarrera zenbait sartu direla. Beste alde batetik, 1995eko ekitaldian sorturiko gastu eta dirusarrera batzuk ez dira sartu.

Egindako lanaren arabera gutxi gorabehera zenbatespena jarriko dugu ondoren:

- 1994an sortu eta 1995eko kontabilitatean erasotako dirusarrerak:

	Pezetak
Tasak eta bestelako dirusarrerak	8.216.000
Ondare dirusarrerak	1.500.000
Guztira	9.716.000

- 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean eraso diren dirusarrerak:

	Pezetak
Tasak eta bestelako dirusarrerak	8.726.000
Ondare dirusarrerak	1.500.000
Guztira	10.226.000

- 1995ean sortu eta 1996ko kontabilitatean eraso diren gastuak:

	Pezetak
Langileen ordainketak	2.537.000

Iruzkindutakoaren arabera gomendatzen dugu:

- *Aztertzea ea komenigarren ote den Uraren Udal Batzarra udal egituraren barneko organo berezitu bezala mantentzea, langile berekirik ez duelako, zereginak Udalaren langileen edo hirugarrenen bitartez betetzen dituelako eta nortasun juridikoa argi eta garbi definitu gabe duelako.*

- *Batzarraren egungo antolamendu egiturari eutsiz gero, erregelamendua eguneratu eta osatzea gomendatzen da, hots, aurrekontu eta kontabilitate jarduera arautzeko atala sartu, arlo horretako oinarrizko hatsapenak finkatuz.*

- *Zerga ordenantza bere horretan ezartzea edo, bestela, aldatzea.*

- *Gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera goztea.*

c) San Francisco de Asís Patronatua

Erakunde autonomo gisa eratu da eta Cintruénigoko zaharretxea kudeatzea du xede, Udalak 1993ko urtarrilaren 29an onetsi zituen Estatutuetako 1. artikulua dioenaren arabera.

Erakunde horrek izaera administratiboa du, baita nortasun juridikoa ere eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna. Udalaren osoko bilkurak 1992ko urriaren 2an harturiko erabakiaren bitartez sortu zen Patronatua eta Cintruénigon du helbidea.

Azterketa egin ondoren atera ditugun konklusioak dira:

- San Francisco de Asís Patronatuaren zenbaki ekonomiko behinenetatik ateratzen denez, 1995eko ekitaldiko gastu eta dirusarreren burutze ehunekoak 55 eta 52 izan dira, hurrenez hurren.

Agerian geratu da alde handia dagoela behin betiko aurreikuspenaren eta kitaturiko eskubide eta betebeharren artean.

Alde horiek gertatu dira 1995eko ekitaldian zehar zaharretxea ez delako guztiz beterik egon, Nafarroako Gobernuarekiko Ituna 1995eko maia-

tzaren 23an izenpetu baitzen. Horren ondorioz, zahar etxea guztiz betea izatekotan egin ziren zahar etxeratuaren kuotengatiko dirusarreraren aurrekontua eta langile gastuen eta gastu arruntaren aurrekontua ez dira bete.

- Kontabilitate dokumentuak aztertu ondoren atera ahal izan dugu 1995eko ekitaldiko dirusarreraren aurrekontua kitatzerakoan 1994an eta lehenago ere sortutako dirusarreraren zenbait sartu direla.

Horra kontzeptuon gutxi gorabeherako zenbaitzena, egindako lanaren arabera:

Tasak eta bestelako dirusarrerak 7.721.000 pta.

Iruzkindutakoaren arabera gomendatuko dugu:

- *Aurrekontuak errealitateari gehiago egokituz prestatu eta onestea, legez ezarritako epeen barruan.*

- *Dirusarrerak sortzapenaren eta izaera ekonomikoaren arabera egozte.*

d) Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.

Udaleko osoko bilkurak, 1991ko otsailaren 4an egindako bilkuran, onartu zituen sozietatearen estatutuak eta 1991ko maiatzaren 24an eratu zen Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L. mugagabeko iraupenarekin eta 1.000.000 pezetako kapital sozialarekin (10.000 pezetako balioa izendatu zitzaizen 100 zati). Cintruénigoko Udalak ehuneko 100a harpidetu zuen balio izendatuaren arabera eta guztiz ordaindu.

Sozietatearen xedea dugu Cintruénigoko Udalak edo beste administrazioaren baten ematen dizkion zeregin guztiak betetzea, beti ere agintaritzarekin zerikusirik ez badute. Zehaztuz gero, hurrengo zerbitzuak emango ditu sozietateak: mantenimendua, irauarazpena, konponketa eta kudeaketa, hiri ondare, zentro eta tegi publiko edo herri edo udal jabetzetan, zereginok betetzeko lan itunepeko langileak hartuko dituelarik.

Sozietatearen xedea zehazgabeegia da, zeren eta agintaritzaz besteko udal zerbitzu guztiak har baititzake, aipatu direnez gain. Hori dela eta, erantzukizun mugatuko sozietate hori eratzea zalantzan jar daiteke legezkotasunaren aldetik, izan ere, indarreko toki legearen arabera, irudi hori zerbitzuak zuzenean kudeatzeko modu bat da, eta xedeak edo helburuak zehatz-mehatz jarri behar dira. Horretaz gain, aipatu merkataritza sozietatea eratzeak ekar dezake udal erakunde sistema publikoaren ordeztasun pribatuarena jartzea, eta, ondorioz, toki jarduna arautzen duen administrazio-araubidearen ordeztasun merkataritza ente pribatuei ezartzen zaiena erabiltzea.

Horra azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Dirusarreraren kontusailik garrantzizkoenak, guztizkoaren ehuneko 99 jotzen duena, 10.773.000 pezetarekin, Udalak emandako dirulaguntza jasotzen du.

- 10.582.000 pezeta, gutxi gorabehera, gastu guztien ehuneko 98a, sozietateak izandako langile gastua hartzen du, garbiketako langileak eta udal zerbitzuetako mandataria, funtsean.

XIX. UDALAREN FINANTZA EGOERA 1995EKO ABENDUAREN 31N.

“Iritzia” izeneko IV. atalean adierazia kontutan harturik, aztertutako finantza egoeraren azterketaren ondoriozko gorabehara ekonomikorik esanguratsuenak aipatuko ditugu ondoren. Horretarako, atala azpiatal hauetan egituratuko dugu:

XIX.1 Balantzearen eta emaitzen kontuaren azterketa.

XIX.2. Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko iruzkinak.

XIX.3. Ondorioak.

Azterketa honetan erabiliriko ratio edo koefizienteak, gehienbat, Espainiako Estatuko Toki Sektore Publikorako Kanpoko Kontrol Organoen Koordinazio batzordeak izaera horretako azterketak egiteko hitzartuetatik datoz. Erakusle horiek txosten honetako 1. eraskinean zehazten dira.

Azterketa Udalak emaniko finantza egoeren gainean egin da, fiskalizazioan izan litezkeen doiketa edo birsailkapenak kontutan hartu gabe.

XIX.1 BALANTZEAREN ETA EMAITZEN KONTUAREN AZTERKETA.

V. ataleko 1. eta 2. koadroetan 1995eko abenduaren 31ko egoeraren balantzea eta egun horretan bukatutako urtebeteko ekitaldiko emaitzen kontua biltzen dira.

Hurrengo koadroan datu horietatik abiatuta lortu diren ratio batzuk azaltzen dira. 1995a Sektore Publikoaren egokituriko Kontabilitateari buruzko Plan Orokorra aplikatu den lehenengo ekitaldia izanenez, ezin ratio horiek alderatu aurreko ekitaldiekin.

Ratioa	
Likidezia	%127
Baliagarritasuna	%70
Zorpetzea	%23

Sorturiko autofinantzaketa	%25
Ordaintzeko epea	177 egun
Kobratzeko epea	75 egun

Gorabehera hauek nabarmenduko ditugu:

- Udal diruzaintza egoera onean dago epe laburrean eta Udalak gaitasun ona du bere burua finantzatzeko.

- Zorpetzearen indizea, pasibo osoarekiko, zentzuzkoa. Horrek posible egiten du jarrera onari eustea hurrengo ekitaldietan. Horri ondoren ematen diren iruzkinak gaineratu beharko litzaizkioke.

2. eraskinean agertu bezala, 1995eko abenduaren 31 arte, mailegu eta aurrerapenengatik izaniko zorrak 278.551.818 pezeta egiten du.

Zordunen izaera kontutan harturik, zorra honela sailkatuko da:

Entitatea	Zenbatekoa (Pezetatan)	%
Nafarroako Gobernua	85.417.739	31
Finantza entitateak	193.134.079	69
Guztira	278.551.818	100

Hala ere, komeni da esatea Nafarroako Gobernuaren aurrerapena industrialdeari aplikatu zitzaiola. Hori dela eta, Udala bertan ezarriko enpresek egiten dituzten ordainketen bidez ari da berreskuratzen. Horrek zorpetze ratioa gutxitzea ere ekarriko du.

Hurrengo koadroan, zorra, mugaegunaren arabera, honela sailkatzen da:

	Zenbat (Pezetatan)
Urte batera	26.961.770
Bi urtera	26.985.717
Hiru urtera	26.985.716
Lau urtera	32.485.716
Bost urtera	32.485.728
6 urtetik 10 urtera bitarte	98.622.319
10 urtetik 15 urtera bitarte	34.024.852
Guztira	278.551.818

Hortaz, uste dugu, udalaren finantza egoerak bere horretan badirau, zorren mugaegunaren arabera, udalak, ondorengo ekitaldietan, aurre egiten ahalko diela pasibo horiei.

- Ordaintzeko epeari dagokionez, hori hain luzea da:

a) Izaniko arazoengatik industrialdeko obretako azkeneko hiru ziurtapenei atxiki zaielako (ikus bedi X. Atala).

b) Epe laburreko zordunen kasuan 26.250.000 pezetako zenbatekoa dago sarturik, zenbait banku-maileguren aurreko amortizazioari dagokion eta, beraz, finantza entitateekiko zor gisa erregistratu beharko zatekeena.

- Kobratzeko epeak adierazten du, dirudienez, ez dagoela berankortasun arrisku handirik. Hala ere, eginiko azterketatik abiatuak, gure ondorioa da, hain aintzinasunagatik, zerga dirusarrerengatik zor batzuk ezin daitezkeela kobratu, 2.910.000 pezeta gutxi gora behera kontusail kobrazinetara eraman behar direlarik.

- *Gure gomendioa da kobratzeke dauden zenbatekoen kobragarritasunari buruz zehatz-zehatz eta aldi-aldi azterketak egin daitezela, egoera horien arintasunez aurkitzeko.*

Emaitzen kontuari dagokionez, ondoren ohiko gastu eta dirusarreraren ehunekoen xehetasuna azaltzen da:

Gastuak	%	Dirusarrerak	%
Langileen gastuak	45	Salmentak	9
Finantza gastuak	9	Jabetza eta enpresa errenta	4
Tributuak	-	Ekoizpenari loturiko tributuak	30
Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	34	Ohiko zergak, errenta eta ondarearen gainean	7
Ohiko transferentziak	11	Ohiko transferentziak	46
Kapital transferentziak	1	Kapitalaren gaineko zergak	4
		Bestelako dirusarrerak	-
Guztira	100		100

Gastuen barruan, inportantziagatik, langileen gastuak eta kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak dira nabarmenezkoak, gastu guztien ehuneko 45 eta 34 egiten baitute, hurrenez hurren.

Dirusarrerei dagokionez, ohiko transferentzien eta ekoizpenari loturiko tributuaren garrantzia nabarmetzen dugu, haiek dirusarrera guztien ehuneko 45 eta 30 egiten baitute.

XIX.2 AURREKONTUEN BETETZE-MAILARI BURUZKO IRUZKINAK.

Ondoren aurrekontuaren betetze-mailaren ondoriozko alderdi hauek nabarmenduko ditugu.

- Dirusarreraren eta gastuen betetze-maila ehuneko 93 eta 94 da, hurrenez hurren. Dena dela, ikusi dugu badagoela kontusailen bat aurrekontuan zegoena, baina bete ez dena eta badauela beste kontusail batzuk aurrekontuen mugak gain-

ditu dituztenak, gehienbat dirusarreraren atalean. Hor desbiderapenik esanguratsuenak 6, 7, 8 eta 9 kapituluetan erregistratu dira. Haien ondorio garbia, gutxi gora behera aurrekontuan zegoena baino 43 milioi pezetakoa izan da.

- 1995eko aurrekontuaren betetze-mailak eskubide aitortuak biltzen ditu, 478.902.800 peze- ta egiten dutenak, 487.830.693 pezeta egiten duten obligazioen aldean. Horregatik, betetze- mailak 8.927.883 pezetako defizita dauka.

- Hurrengo koadroan, ehunekoetan, aurrekon- taun aitorturiko gastu eta dirusarreraren osaketa, haien izaera kontutan harturik:

Izaera	Gastuak	Dirusarrerak
Ohikoak	51	67
Kapitalekoak	49	33
Guztira	100	100

- Bestaldetik, ondoren Udalak 1995ean aurkeztu- riko aurrekontuaren betetze-mailatik abiatu- rik ratio eta datu batuk aurkeztuko ditugu. Ez zaizkigu eman 1994ko datuak. Hori dela eta ezin dugu bi ekitaldien arteko bilakaeraren azterketa ezarri.

Aurrezki gordina	94.710.849	Pezeta
Aurrezki garbia	20.435.766	Pezeta
Zorpetze maila		%23
Zorpetzearen muga		%30
Finantza zama, bizilaguneko	13.546	Pezeta
Zerga presioa, bizilaguneko	29.344	Pezeta

Aurreko datuetatik hau ateratzen ahal da:

- Bai aurrezki gordina, bai garbia positiboak dira. Horrek esan nahi du udalak baliabide propio- ak sortzen dituela inbertsioak finantzatzeko.

- Zorpetze maila zorpetzearen muga baino 7 puntu gutxiagokoa du. Horrek posible eginen du jarrera onari eustea hurrengo ekitaldietan, maile- gu eta aurrerapenengatik bereganatu duen eta 2. eraskinean zehazten den zorra kontutan harturik.

- Bizilaguneko finantza zamak eta zerga pre- sioak Nafarroako Udalek 1994ko ekitaldian zeuka-

tenaren batez-bestekoaren antzeko egoeran diraute, 11.811 pezetatan eta 38.811 pezetatan, hurrenez hurren. Hala ere, alderapen hauetan kontuan hartu beharko litzateke elkargoen bidez, gehienbat, mankomunitateen bidez, ematen diren zerbitzuen eragina.

XIX.3. ONDORIOAK.

Aurreko atal guztien azterketatik ondorio hau ateratzen dugu:

1995eko aurrekontuaren betetze-maila egokia da.

Cintruénigoko Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen egoera ekonomiko-finantzieroak bere horretan badirau posible eginen dio hurrengo eki- taldietan pasiboari aurre egitea.

Halaber, udal diruzaintzak, epe laburrean, ego- era ona du, bere burua finantzatzeko gaitasun ona duela nabarmentzekoa delarik.

XX. KONPROMEZUAK ETA GORABEHE- RAK.

- Cintruénigoko Udala abalemaile solidarioa da Fitero eta Cascanteko Udalekin batera Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Udalen Ur Mankomunita- tearen izenean dagoen eragiketa finantziero bate- an. Eragiketa honek 1995eko abenduaren 31n 39.088.458 pezeta jotzen du.

- 1995ean, Cintruénigoko Udalak zezenketa egin zuen, sokamuturra alegia, eta Barne Zuzen- daritza Nagusiak ez zuen Udalak eskaturiko bai- menik eman. Hori zela eta, zehapen espedientea ireki zitzaion Udalari eta 500.000 pezetako isuna jarri. Zehapena errekurritu eta 1995eko urrian ezetsi zuten errekurtsioa. 1996ko maiatzaren 30ean, Nafarroako Gobernuaren banaketa kon- tuan zordundu da zehapen hori.

- Industrialdeko obren enpresa esleipendunak errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri du Cintruénigoko Udalaren aurka, Udalak arazo horretaz eman duen azken erabakiari buruz (X. atala)

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: Francisco J. Tuñón San Martín

ERASKINAK.**1. ERASKINA. ERABILITAKO RATIOEN DEFINIZIOA**

1.- "Likidezia".

Finantza-kontuak+ (Zordunak-berankorrek)
+ izakinak

x 100

Epe laburreko zorrak

2.- "Baliagarritasuna".

Kutxa+Bankuak

x 100

Epe laburreko zorrak

3.- "Zorpetzea".

Epe laburreko zorrak+ Epe luzeko zorrak

x 100

Pasiboaren batura

4.- "Sortutako autofinanziazioa".

Ekitaldiaren emaitza

x 100

Salmentak eta dirusarrerak, izaera dela eta

5.- "Ordaintzeko epea".

Epe laburreko zorrak

x 365

6 Multzoko gastuak

6.- "Kobratzeko epea".

Zordunak - Berankorrek

x 365

7 Multzoko dirusarrerak

7.- "Zorpetze maila".

Zama finantziera (3. eta 9. kap.)

x 100

Ohiko dirusarrera (1-5 kap.)

8.- "Zorpetze-muga".

Ohiko dirusar. (1-5 kap.) -
funtzionamen. gastuak (1, 2 eta 4 kap.)

x 100

Ohiko dirusarrerak

9.- "Aurrezki gordina".

Ohiko dirusarrerak (1-5 kap.) -
funtzionamendu gastuak (1, 2 eta 4 kap.)

10.- "Aurrezki garbia".

Ohiko dirusarrerak (1-5 kap.) - funtzionamendu
eta finantza gastuak (1, 2 eta 4 kap.)

11.- "Biztanleko finantza-zama".

Finantza-zamak (3. eta 9 .kap.)

Zuzenbideko biztanleak

12.- "Zerga presioa".


Zerga dirusarrerak (1., 2. eta 3. kap.)

Zuzenbideko biztanleak

2. ERASKINA. FINANTZA-PASIBOEN ZERRENDA, 1995EKO ABENDUAREN 31N (PEZETATAN).

Mailegua/aurrerakina	Helburua	Hasierako Zenbatekoa	Korrituaren %	Epe-muga	Ordaindu gabeko kapitala 95.12.31n
Nafarroako Gobernua	Industrialdeko obrak	85.417.739	0	2005	85.417.739
Banco de Crédito Local	Kiroldegiko obrak eta beste	82.948.150	MIBOR+0,60	2000	63.806.272
Caja de Ahorros de Navarra	Ura igotzeko obrak	7.140.250	CECA+0,50	2009	4.998.176
Caja de Ahorros de Navarra	Ura igotzeko obrak	1.915.875	CECA+0,25	2010	1.341.116
Caja de Ahorros de Navarra	Ur horniketa	44.813.861	MIBOR+0,75/CECA-0,50	2008	38.838.679
Caja de Ahorros de Navarra	Ur horniketa	33.634.426	MIBOR+0,75/CECA-0,50	2008	29.149.836
Caja de Ahorros de Navarra	Zaharretxea	85.200.000	MIBOR+0,75/CECA-0,50	2008	55.000.000
Guztira		341.070.301			278.551.818

3. ERASKINA. ORGANIGRAMA 1995EKO ABENDUAREN 31N.



F: Funtzionarioa
LF: Langile finkoa
ABK: Aldi baterako kontratatua

CINTRUENIGOKO ALKATE-UDALBURUAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK.

Faustino León Chivite, Cintruenigoko Alkate-Udalburua den aldetik, Kontuen Ganbararen Ebazpeneko 2. atalean ezarritakoaren arabera, agertzen da eta, ezarritako legezko epearen barruan,

ADIERAZTEN DU:

Kontuen Ganbarak, 1996ko urriaren 23an, bere Lehendakariaren ebazpena, Cintruenigoko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena onetsi zuena, jakinarazi ziola Udal honi.

Ebazpen horretako 2. atalean egokitzen jotzen diren alegazioak aztertu eta, hala bada, aurkezteko aukera ematen zen. Horren arabera, Cintruenigoko Udalak ongi deritza kontsiderazio hauek egiteari:

1.a. VII. Atala.

Aurrekontua arintasun handiagoz likidatzeko gomendioa. 1995eko aurrekontuaren likidazioa berandu egin zen 1995ean Kontabilitaterako Plan Orokorraren aplikazio informatikoa ezarri zelako. Horrek ekarri zuen Kontuen Itxiera, aplikazio

horretako arazoengatik, asko atzeratzen. Normalean, Itxiera otsailean egin zen eta, horregatik, Osoko Bilkurak urtean urteko lehen hiru hilabeteetan likida eta onar dezake Aurrekontua.

2.a. VI. 3 Atala.

“Udal ordenantza ezarritakoaren arabera ezartzea eta aztertu komenigarri ote den Uraren Udal Batzarra bere horretan mantentzea, alegia, organo berezitu gisa udal egituraren barruan.” Uste da ura hornitzeko tasa arautzen duen ordentza fiskala modu egokian aplikatzen dela. M³aren salneurria aldatu behar denean (urtero gertatzen ez dena), tasak zuzendu egiten dira, aginduzkoa denez, N.A.O.an argitaratzen direlarik.

Gauregun mantenimendu, kontsumo, saneamendu kanonaren kuotaren bidez kontratzen ari da. Horri guztiari dagokion B.E.Z.a aplikatzen zaio. Modu berean, diren altei lotzeko tasa kobratzen zaie, ordenantzetan ezartzen den fidantza ordezkoa dena.

3.a. V.II.1 Atala

Aurrekontuaren jarraipen eta betetze-mailan bai zehazten direla kobratzeke eta ordaintzeke dauden zenbatekoak.

4.a. VII.3 Atala.

Zergadunen erroldak, onetsiak daudela ager ez badadi ere, egiaztatu egiten dira eta aurreko aldian izaniko alta eta bajak alderatu egiten dira. Egiaztapen horren kopia artxibatu egiten da, noiz-nahi berriro egiaztatzen ahal delarik.

5.a. VIII. Atala.

Langileen nominak, aurtengo urte honetatik, informatikoki egiten dira. Halaber, langile funtzionarioek izenpetu egiten du nominaren gordekina.

6.a. XI. Atala.

1995ean sorturiko eta 1996an kontabilitatean erregistraturiko dirusarrerak. Iberdrola edo Telefonicarentasentan arrazoirik badago, likidazioa hartzen denean kontabilizatzen baitira. Energia kontsumoaren gaineko likidazioak direnez, ezin da jakin zenbat egin dezakeen dirusarrerak ordaindu arte eta, normalean, egiaztatzen ahal denez, entitate ordaintzaileak asko atzeratu ohi dira.

7.a. XV.1 Atala.

Txostenean adierazten den korritu kontusaileko egozketa horretarako urtero urtarrilaren 27an egiten den likidazioaren ondoriozkoa da. Gaur

arte oraindik ez da kontabilitatea itxi, eta aurreko urteko kontuetan sartzen da, uste dugulako ekitaldi horri dagokiola eta ez hurrengoari. Dena dela, urtero, aurrekontuei eta kontabilitateari dagokie-nez egiten denez, ez du deustako kontabilitatea aldatzen.

8.a. XVII. Atala.

Cintruenigoko Udalak, Osoko Bilkuran, Udal Plan Berria onetsi zuen hasiera batez maiatzean. Plan hori 1981eko Arau Subsidiarioen ordezkia izanen da. Momentu honetan, jende aurrean egoteko epean aurkezturiko alegazioak aztertzen ari dira. Udal Plan Berria 1994ko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa biltzen du.

Eta Kontuen Ganbararen aurrean ager dadin, aurreko alegazioak behar den denbora eta moduan aurkeztu dira, eskatzen da kontutan har daitezela, eta egokiak diren txostenen ondoren, Ganbara horrek Cintruenigoko Udalaren 1995eko ekitaldi ekonomikoari buruz egin duen fiskalizazio txostenari gainera dakizkiola.

Cintruenigon, 1996ko urriaren 30a

Alkatea: Faustino León Chivite

